

KOIUNTURAZ

62. zkia. – 1. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
EAE-KO EKONOMIA 2007KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN	8
EAEko ekonomiaren testuingurua	8
Ekoizpena eta eskaria.....	15
Ekoizpen jarduera	16
Eskariaren osagaiak	19
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	22
Lan merkatua.....	30
Prezioak, kostuak eta soldatak	37
Arlo publikoa.....	43
Finantza arloa	45
EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	51
Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak	51
EAErako aurreikuspenak epe laburrean	59

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

EAEko ekonomia %3,6 hazi zen 2007. urteko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino bi hamarren gutxiago bakarrik. Beraz, urteko bigarren erdian berrabiatu zen moteltzeko joerak aurrera egin du, baina azken mugimenduak inguruneko zenbait ekonomiatan gertatu direnak baino leunagoak izan dira. Moteltzearen oinarrian barne eskariak indarra galdu izana dago, hala barne kontsumoan nola, bereziki, kapital eraketa gordinen. Kontsumo pribatuak berriro gutxitu zuen bere urte arteko aldakuntza tasa, baina oraingoan hamarren batera mugatu zuen erritmo galera. Aitzitik, kontsumo publikoak aurreko hiruhilabeteko sendotasunari eutsi zion. Eskaintzaren ikuspegitik, industriak eta eraikuntzak aurreko hiruhilekoan baino nabarmen gutxiago areagotu zuten balio erantsia, baina zerbitzuek gorakada garbia izan zuten beren bilakaeran, merkaturatzen ez diren eta administrazioaren jardunari lotuta dauden zerbitzuek erakutsi zuten bizitasunari esker. Hiruhilekoaren laburpenarekin amaitzeko, enplegua sortzeko erritmoak bere horretan (%2,3) jarraitu duela eta prezioetan ez dela hobekuntzarik izan adierazi behar da.

Laugarren hiruhilabeteko datuak argitaratu ondoren, dagoeneko 2007ko lehen balantzea egin daiteke. EAEko ekonomia, urte horretan, %3,9 hazi zen, 2006an baino hiru hamarren gutxiago. Hala ere, aldakuntza tasa hori testuinguru zabalago batean kokatze aldera, gogoratu behar da azken hamazortzi urteko hazkunde tasa, batez beste, %3,4 izan dela. Beraz, 2007ko gehikuntzak batez beste hori puntu erdi batean gainditzen du eta, horren ondorioz, oso positibotzat jo behar da emaitza. Are gehiago, aldakuntza tasa hori ekonomia garatuek batez beste izan duten hazkunde, %2,6an estimatua baita, baino askoz ere handiagoa izan da, nahiz eta munduko ekonomiaren tasara (%4,9) ez iritsi. Azken hau, garapen bidean dauden herrialdeen bizitasunari esker, azken hamarkadetako hazkunde tasa garaianetan dago.

Munduko ekonomiak emaitza onak lortu dituen arren, hazkunde tasak moteltzeko joera hartu du azken hilabeteetan, bereziki ekonomia garatuek nozitu duten ahultasunaren ondorioz. Laugarren hiruhilabeterako argitaratu diren datuek adierazten dute bai Europar Batasunak bai AEBek hiru hamarrenetan apaldu dutela hazkunde erritmoa. Bilakaera horren atzean hainbat arrazoi daude, baina bere ondorioengatik azpimarratu behar direnak ekonomia eragileen konfiantza galera eta finantza zein kreditu merkatuetan hedatu den ekaitza dira. Bi horiei lehengaiek nazioarteko merkatuetan izan duten garestitzea gehitu behar zaie. Garestitzearen zioa eskaintzaren ezintasuna gorantz doan eskari bat asetzeko dago, munduko jarduera oso bizi hazten ari den une batean.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006		2007		
			IV	I	II	III	IV
Europar Batasuna 27	3,0	2,9	3,4	3,3	2,7	2,9	2,6
- EAE	4,2	3,9	4,0	4,1	4,1	3,8	3,6
- Espainia	3,9	3,8	4,0	4,1	4,0	3,8	3,5
- Alemania	2,9	2,5	3,9	3,7	2,6	2,5	1,8
- Frantzia	2,0	1,9	2,1	1,9	1,3	2,2	2,1
- Italia	1,8	1,5	2,8	2,4	1,8	1,9	---
- Erresuma Batua	2,9	3,1	3,3	3,1	3,2	3,3	2,9
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,9	2,2	2,6	1,5	1,9	2,8	2,5
Japonia	2,4	2,1	2,4	2,9	1,7	1,9	1,8
Txina	10,7	11,4	10,4	11,1	11,9	11,5	11,2
India	9,2	8,9	8,6	9,1	9,3	8,9	8,4

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, Eustat eta Eurostat.

Hasieran moneta esparrukoak ziren baina gero ekonomia errealean ere eragina izan duten ziurgabetasunei eman zaion erantzuna guztiz ezberdina izan da Atlantikoaren alde batean eta bestean. Izan ere, AEBetako Erreserba Federalak ekonomia hazkundera bultzatzea erabaki zuen eta moneta politika bigunagoa ezarri. Hori dela eta, interes tasak bi mugimendutan jaitsi zituen %3an utzi arte (1. irudia). Are gehiago, prest agertu da murrizketa gehiago egiteko beharrezkoa izango balitz. Aitzitik, Europako Banku Zentralak inflazioaren bilakaera zaintzeko betebeharrari eman dio lehentasuna eta ez du inolako aldaketarik egin interes tasetan, %4,0an jarraitzen direlarik, urte amaieran prezioen igoera erakunde horrek ezarri zuen helburutik nabarmen aldendu zen arren.

Munduko lehen ekonomiak %2,5eko hazkunde tasa lortu zuen urteko azken laurdenean, egoitzetan eginiko inbertsioaren beherakada garrantzitsuak (%-18,6) kaltetuta eta aurreko hiruhilabeteetan baino motelago hazi zen kontsumo pribatuak (%2,5) baldintzatuta. Hala ere, dolarraren ahultasunak herrialde horretako merkataritza saldo negatiboa asko murriztea ahalbidetu du, BPGren gehikuntzari zortzi hamarrenetako ekarpena eginez. Esportazioak oso bizkor areagotu ziren (%7,9), baina inportazioak %0,9 baino ez.


Europar Batasuna osatzen duten herrialdeek, berriz, %2,6 gehitu zuten beren barne produktu gordina, hirugarren hiruhilabeteko emaitza hiru hamarrenetan jaitsiz. Moteltze horren zati

handi bat euroaren sendotasunaren ondorioa izan zen, kanpoan lehiatzeko ahalmena murriztu duelako. Hain zuzen ere, hirugarren hiruhilekoan kanpo eskariak hazkundeari ekarri zizkion bi hamarrenak laugarrenean galdu ziren. Familien kontsumoak ere bere erritmoa moteldu zuen nabarmen, baina izakinen aldakuntzak neurri batean konpentsatu zuen bilakaera hori, barne eskariaren ekarpena ia osorik bere horretan utzita. Europar Batasuneko bost herrialde nagusien artean, Alemaniak nozitu zuen gehien laugarren hiruhilabeteko motelaldia, bere barne produktu gordina zazpi hamarren gutxiago hazi zela estimatu baita.


Interes tasen bilakaera

1. irudia

AEBetako Erreserba Federala



Europako Banku Zentrala



Iturria: Espainiako Bankua.

Japoniak, berriz, %2ra iristen ez diren hazkunde tasak jasotzen jarraitu zuen, aurreko hiruhilekoen aldean aldaketa nabarmenik erakusten ez dutenak. Azkenik, Txinak hamarren gutxi batzuk murriztu zituen bere gehikuntza tasa aparta. Hazkunde horrek dagoeneko eragina izan du inflazioaren bilakaeran (%8,7 hazi zen otsailean) eta, horren ondorioz, ekonomia hozteko beste neurri batzuk, bereziki ingurumenaren narriadurarekin lotutakoak, hartuko direla aurreikusten da.

Oraindik oso garrantzitsua den baina hirugarren hiruhilabeteko mailara iristen ez den ekonomia hazkunde horrek eragina izan du EAEko ekonomian ere 2007ko bigarren erdian. Hain zuzen ere, laugarren hiruhilekoan hirugarrenean hasi zen moteltzeak jarraitu zuen, nahiz eta erritmo galera leunagoa izan zen eta bi hamarrenetara mugatu. Hori dela eta, urte arteko aldakuntza tasa %3,6an kokatu zen. Erritmo galera barne eskarian gauzatu zen, urtearen lehen


erdian jasotako tasaren aldean puntu oso bat gutxiago hazi zelako. Aitzitik, kanpo saldoak nabarmen gutxitu zuen hazkunderari kendutakoa eta bi hamarrenetara mugatu zuen kenketa.

Barne eskariaren barnean, kapital eraketa gordina berriro izan zen gehikuntza tasa handiena lortu zuen osagaia, nahiz eta aurreko hiruhilabeteko mailaren oso azpitik geratu zen. Jardueraren atal jakin batzuei buruzko adierazleen arabera, bai eraikuntzan eginiko inbertsioak bai ekipamendurako ondasunetan eginikoak portaera apalagoa izan zuten 2007ko laugarren hiruhilekoan. Kontsumo pribatuak, berriz, urte osoan zehar erakutsi zuen hazkunde tasa gutxitzeko joera azken laurdenean leundu zuen eta urte arteko tasa %3,2an utzi. Erritmo hori hurbilago dago errenta erabilgarriaren bilakaeratik, azken hau batez ere enpleguaren sorrerak eta soldata errealean gorakadak baldintzatzen baitute, aberastasun efektua murriztuz joan den une batean. Kontsumo publikoak, berriz, oso gehikuntza tasa garrantzitsua jaso zuen, %4,2an estimatu dena.


BPGren hiruhilabeteko hazkundera eta ekarpenak

2. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Eskarrien ekarpenak



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eskaintzaren ikuspegitik, portaera kontrajarriak hauteman ziren laugarren hiruhilekoan. Alde batetik, industriak eta eraikuntzak indarra galdu zuten etengabe urtean zehar. Beste aldetik, zerbitzuek bultzada garrantzitsua izan zuten urte amaieran. Industriari dagokionez, laugarren hiruhilabeteko ekoizpena txikiagoa izan bazen ere, etorkizunari buruzko igurikimenak oso baikorrak dira, sektoreko enpresariak eman dituzten iritzien arabera. Etxebizitzaren arloan agertu diren zailtasunek eraikuntza sektorearen jarduera moteldu izana justifikatzen dute, nahiz eta eraikuntzako gainontzeko atalek (obra zibilak eta egoitzetarako ez diren eraikinak) neurri

batean konpentsatu duten erritmo galera hori. Azkenik, zerbitzuen artean, merkaturatzen direnek ibilbide egonkorra erakutsi zuten bitartean, administrazioaren jardueri lotuagoak direnek bultzada garrantzitsua izan zuten, arrazoi iragankorrengatik, eta azken sei urteko emaitzarik onena jaso (%4,2). Aurreko guztiaren ondorioz, balio erantsiak bilakaera egonkorra eskaini zuen hirugarren hiruhilabetearen aldean eta ekoizkinen gaineko zerga garbiek hazkunde erritmoa gutxitu zuten.

Ekoizpenaren datuekin batera, enpleguak ere aldakuntza tasa garrantzitsua izan zuen 2007ko laugarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, Eustatek hiruhilekako kontabilitatean estimatu dituen lanpostuen kopurua %2,3 areagotu zen, aurreko hiruhilabeteko tasa berdinduz. Enpleguaren hazkundera hauteman den egonkortasun bera ikusten da Gizarte Segurantzako afiliatuen datuetan ere, 2007. urteko azken bi hiruhilekoetan igoera tasa %2,4an kokatu zelako. Enplegu sorrerari esker, langabezia tasak hirugarren hiruhilabetearen lortutako maila apal ezohikoetan jarraitu zuen. Hala ere, ekoizkortasun irabaziak txikiagoak izan direla nabaritu da. Zehazkiago adierazita, 2007an 2006an baino ia puntu erdi bat gutxiago hazi zen batez beste ekoizkortasuna, gutxieneko balioa (1,3 puntu) urteko azken hiruhilekoan jaso zelarik.

EAE-KO EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK


2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006		2007		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	4,2	3,9	4,0	4,1	4,1	3,8	3,6
Enplegua	2,3	2,4	2,2	2,6	2,4	2,3	2,3
Ekoizkortasun irabaziak	1,9	1,5	1,8	1,5	1,7	1,4	1,3
Langabezia tasa	4,1	3,3	3,4	3,4	3,4	3,1	3,1
Kontsumoko prezioen indizea	3,4	2,8	2,5	2,4	2,5	2,5	4,0

Iturria: Eustat eta INE.

Prezioen bilakaera bereziki kezkarria izan zen laugarren hiruhilekoan. Urteko batez bestean kontsumoko prezioak 2007an 2006an baino askoz gutxiago hazi baziren ere, urteko azken hilabeteetan lehengaiak nazioarteko merkatuetan izan zuten garestitzeak nabarmen kaltetu zuten EAEko urte arteko tasa. Hain zuzen ere, petrolioaren salneurria etengabe igo zen, upelaren balioa 100 dolarretara iritsi arte. Elikatzeko lehengaiak eurotan neurtuta, berriz, %25aren inguruan garestitu ziren. Aurreko guztiak zenbait ekoizkinen prezioak goratu zituen, hala nola garraioan, etxebizitzan eta elikagaietan biltzen direnak. Orobat, lehiatik kanpo dauden zenbait zerbitzuek ere hazkunde tasa altuak jaso zituzten bere prezioetan.



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Datozen hiruhilabetei begira, ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakunde batzuek iragarri dute munduko ekonomiaren hazkundera 2008. urtean 2007koa baino txikiagoa izango dela. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) zortzi hamarrenetan estimatu du moteltze hori eta Consensus Forecast-ek, berriz, zazpi hamarrenetan. Bi erakunde horiek antzeko murrizketa aurreratzen dute garatutako herrialdeentzat eta garapen bidean dauden ekonomientzat, baina ezkorragoak dira Eurogunearentzako aurreikuspenetan, eremu horren gehikuntza tasa 2007koa baino puntu bat beherago kokatzen dutelako.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak estimatu du oraingo moteltzeak jarraipena izango duela eta 2008. urtean, batez beste, EAEko barne produktu gordina %3,2 haziko dela, hau ere 2007ko datua baino zazpi hamarren gutxiago. Beraz, aurtan ekonomia eremu nagusien bilakaera baldintzatuko duten gertakariak EAEko ekonomian ere eragina izango dute. Hala ere, inguruneke ekonomietarako estimatu diren balioetatik gora jarraituko du berriro.

Apaltzeko joera barne eskarian gauzatuko da, 2007an baino askoz ere gutxiago haziko delako, bere bi atal nagusiek izango duten moteltzearen ondorioz. Alde batetik, kontsumo pribatuak errenta erabilgarriaren bilakaerari gehiago egokituko dio bere hazkunde tasa, familiak zor gutxiago hartuko dituzten bitartean, batez ere etxebizitzak erosteko. Kontsumo publikoak ere 2007. urtean baino tasa txikiagoa jasoko du. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak, urteko

batez bestean, gehikuntza erritmoa murriztuko du, baina laugarren hiruhilabetearen aldean susperraldia izango duela aurreikusten da, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren bizitasunari esker. Azkenik, kanpo saldoak hamarren bat gutxiago kenduko dio barne produktu gordinaren hazkundeari.

EAE-RAKO AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2008			
		I	II	III	IV
BPG errealak	3,2	3,4	3,2	3,2	3,0
BPGren deflatoarea	3,4	3,4	3,4	3,3	3,3
Enplegua	1,8	2,0	1,8	1,7	1,5
Langabezia tasa	3,4	3,2	3,3	3,5	3,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizpen arloen ikuspegitik, industriaren suspertzea aurreikusten da, iritzi inkestetan enpresariak aitortu duten baikortasunarekin bateragarria dena. Aitzitik, eraikuntzak jarduera tasa gutxituko du eta EAeko ekonomiaren batez besteko gehikuntza tasa baino askoz ere beherago geratuko da, higiezin merkatuetan dauden arazoek eta kredituen garestitzeak kaltetuta. Zerbitzuek, oro har, portaera apalagoa izango dutela aurreikusten da, bereziki merkaturatzen ez diren zerbitzuek. Horren ondorioz, 2007. urtean lortutako datua baino puntu erdi bat gutxiago haziko da arloa.

Aurreikuspen hau osatzeko adierazi behar da enplegu sorrera azken urteetakoa baino nabarmen txikiagoa izango dela, ekoizkortasun irabaziak puntu bat eta erdiaren inguruan kokatzea ahalbidetuz. Kontuan hartzen bada biztanleriaren aldetik ez dagoela aparteko presiorik eta, aitzitik, industria alorreko ordezkariak langile kualifikatu asko behar dituztela behin eta berriro adierazi dutela, urtean zehar sortuko diren lanpostuak nahiko izango direla langabezia tasa oso maila apaletan eusteko aurreikusten da. Prezioen bilakaeran ere ez da aldaketarik espero eta Europako Banku Zentralak ezarritako helburua aise gaindituko dute. Hain zuzen ere, BPGren deflatoarea urteko batez bestean %3,4aren inguruan jarraituko du.

EAE-KO EKONOMIA 2007KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN

EAEko ekonomiaren testuingurua

2007. urtean, munduko ekonomiak %4,9ko hazkunde tasa lortu zuen, 2006. urtean izandako gehikuntza baino hamarren bakar bat gutxiago delarik. AEBetako subprime hipoteken krisiak, oinarritzko ekoizkinen etengabeko garestitzeak eta interes tasen aldakuntzek finantza merkatuetan ziurgabetasuna areagotu badute ere, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) egin dituen lehen estimazioen arabera, munduko ekonomiak laugarren urtez jarraian hazkundera sendoa izan zuen.


Beste urte batez, munduko jarduerak garapen bidean dauden ekonomien sendotasunean oinarritu zuen bere hazkundera, garatutako herrialdeek munduko ekonomian pisua galtzen duten bitartean. Hain zuzen ere, Txinako ekonomiak beste gorakada bat lortu zuen eta %11,4 hazi zen, Indiak %9,0 eta Errusiak %8,0aren inguruko tasa jaso zuten bitartean. Hiru herrialde horiek munduko hazkunderaren erdia ekarri zuten eta AEBen erritmo motela, bereziki urteko lehen seihilekoan, konpentsatu zuten. Izan ere, 2007. urtean eta higiezinaren merkatuaren motelaldi sakonaren ondorioz, estatubatuar ekonomia aurreko urtean baino zazpi hamarren gutxiago hazi zen. Garatutako gainontzeko herrialdeetan apaltzeko joera txikiagoa izan zen. Japoniak, urtea aurrera zihoan ahala indarra galdu bazuen ere, urteko batez bestean 2006koa baino hiru hamarren gutxiago bakarrik hazi zen. Europar Batasunean ia ez zen aldaketarik gertatu hazkunde erritmoan, Espainiaren eta Erresuma Batuen bilakaera onari esker eta Frantziaren egonkortasunari esker.

Munduko ekonomiak suspertzeko ahalmen handia eduki arren, 2008. urtean badaude arrisku garrantzitsuak eta, horren ondorioz, epe laburrerako aurreikuspenak beherantz berrikusi dira. Arrisku horien artean azpimarratu behar dira finantza ezegonkortasunak, etxebizitzaren merkatuaren beherakada, eta energiaren zein bestelako lehengaien garestitzea. Hala eta guztiz ere, gaur eguneko enplegu maila altuak, enpresen mozkin garrantzitsuek, garapen bidean dauden ekonomien sendotasunak eta Europako ekonomien egonkortasunak pentsarazten dute munduko ekonomiaren bilakaera nahiko ona izango dela oraindik. Horren haritik, NDFk urtarrilean aurkeztu zituen aurreikuspenetan munduko jardura 2008. urtean %4,1 areagotuko dela estimatu zuen.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

AEBetan, lehen seihilekoan moteltzeko joera garrantzitsua erakutsi zuen arren, urteko bigarren seihilekoan jarduerak izan zuen suspertze nabarmenak 2007. urteko BPGren hazkundera %2,2ra eraman zuen. Hala ere, tasa hori 2006koa baino zazpi hamarren txikiagoa da eta azken bost urteetako emaitzarik apalena. Moteltze horren atzean egoitzetan eginiko inbertsioaren jaitsiera kezkagarria dago (gutxienez azken hamabost urteko datu txarrena jaso baitzuen) eta baita esportazioen hazkunde txikiagoa eta kontsumo pribatuaren apaltzea ere. Neurri batean inportazioen beherakadak eta herri administrazioen gastu publikoaren erritmo egonkorrak konpentsatu zuten aipatutako osagaien ahultasuna. Gaingintza beharreko beste ikasgai bat inflazioa izan zen. 2007. urtean batez beste prezioak %2,9 igo baziren ere, urteko azken hiruhilekoan %4,0ra iritsi ziren. Horri gehitzen bazaio langileen ordainketak ez direla igo, erregaiak garestiagoak direla eta higiezinaren arloko krisia luzatzen ari dela estagflazioa (ekonomiaren hazkunde eza gehi inflazioa) eta baita atzeraldia ere agertu daitezkeelako mehatxua dago. Azkenik, langabezia tasa bere horretan geratu zen, baina igotzeko joera arina erakutsiz.

Japoniak %2,9ko gehikuntza sendoa lortu zuen urteko lehen hiruhilekoan, baina %2,0ra mugatu zuen erritmoa gainontzeko hiruhilekoetan. Urteko batez bestean barne kontsumoak ahultasuna erakutsi zuen eta ez zen suspertu urtean zehar. Inbertsioa ere apal ibili zen, bereziki bigarren hiruhilekotik aurrera, alegia, Eraikuntzako Arauak zehazten dituen Legea aldatu zenetik, hasitako etxebizitzaren kopuruak eta enpresen eraikuntzak beherakada garrantzitsua nozitu zutelako. Esportazioak, ordea, hilabetez hilabete gero eta hazkunde handiagoa lortu zuen, neurri handi batean Txinako bezalako merkatu berrien eskaria handiari esker. Urtearen azken hiruhilekoan, inportatutako lehengaien garestitzearen ondorioz, kontsumoko prezioen indizeak aldakuntza tasa positiboak jaso zituen eta atzean utzi zuen deflazioaren mamua. Lan merkatuak bilakaera onari eutsi zion eta bi hamarrenetan gutxitu zuen langabezia tasa.

Txina %11,4 hazi zen 2007. urtean, urte hasierako aurreikuspenak nabarmen gaingintuz eta bertako Gobernuak azken urteetan ezarri dituen kontroleko politiken eraginkortasun txikia agerian utziz. Hazkunde tasa hori 1994. urtetik aurrera inoiz jaso duten handiena da eta laster Asiako erraldoia munduko hirugarren ekonomia bihurtu dezake, AEBen eta Japoniaren atzetik. Kanpo arloa eta aktibo finkoetan eginiko inbertsio garrantzitsua berriro izan dira hazkundearen oinarri nagusiak. Halaber, orain arte oso apal hazten ari zen kontsumoak gorakada nabarmena izan zuen. Lan merkatuak bilakaera ona erakutsi zuen 2007. urtean eta hirietako langabezia tasa %4,0ra murriztu zuen. Txanponaren ifrentzuan, inflazioak oso aldakuntza tasa handiak jaso zituen. Hain zuzen ere, kontsumoko prezioen indizeak %6,5etik gorako tasa adierazi zuen urteko azken hiruhilekoan, Txinako dietaren oinarritzko zenbait produktu, hala nola txerrikia, %75 arte garestitu zirelako.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala							
AEB	2,9	2,2	2,6	1,5	1,9	2,8	2,5
Japonia	2,4	2,1	2,4	2,9	1,7	1,9	1,8
EB - 27	3,0	2,9	3,4	3,3	2,7	2,9	2,6
- Alemania	2,9	2,5	3,9	3,7	2,6	2,5	1,8
- Frantzia	2,0	1,9	2,1	1,9	1,3	2,2	2,1
- Erresuma Batua	2,9	3,1	3,3	3,1	3,2	3,3	2,9
Inflazioa							
AEB	3,2	2,9	1,9	2,4	2,7	2,4	4,0
Japonia	0,2	0,1	0,3	-0,1	-0,1	-0,1	0,5
EB - 27	2,3	2,4	2,0	2,2	2,2	2,1	3,0
- Alemania	1,8	2,3	1,3	1,9	2,0	2,2	3,0
- Frantzia	1,9	1,6	1,5	1,3	1,3	1,4	2,5
- Erresuma Batua	2,3	2,3	2,7	2,9	2,6	1,8	2,1
Langabezia tasa							
AEB	4,6	4,6	4,5	4,5	4,5	4,7	4,8
Japonia	4,1	3,9	4,1	4,0	3,8	3,8	3,8
EB - 27	8,2	7,1	7,7	7,4	7,2	7,0	6,9
- Alemania	9,8	8,4	9,2	8,7	8,5	8,3	7,9
- Frantzia	9,2	8,3	8,9	8,6	8,4	8,2	7,9
- Erresuma Batua	5,3	---	5,4	5,5	5,3	5,2	---

Iturria: Eurostat eta ELGE.

Europar Batasunak oinarri sendoak erakusten jarraitu zuen. Enpleguak bilakaera onari eutsi zion eta garapen bidean dauden herrialdeek kanpo arloa hauspotu zuten. Horren ondorioz, 2007. urtean batez besteko hazkundea %2,9an kokatu zen, aurreko urtean lortutako tasatik oso hurbil eta azken zazpi urteko emaitzarik onenetarikoa.

Urteko azken hiruhilekoan moteltzeko joera biziagoa erakutsi zuen arren, oraingoz Europar Batasunean ez da atzeraldiaren inolako zantzurik hauteman. Kontsumoa sendo hazten da eta inbertsioa, 2006ko mailaren aldean erritmoa zertxobait jaitsi badu ere, berriro izan da barne eskariaren zutabe nagusia. Halaber, euroak dolarraren aldean balio handia irabazi zuen arren, esportazioek oso bilakaera positiboa izan zuten eta, horren ondorioz, kanpo saldoak berriro ekarri zizkion zenbait hamarren hazkundeari. Inflazio tasa egonkor hazi zen urteko lehen hiru hiruhilekoetan, baina azken laurdenean inflazioaren presioa hasi zen hautematen eta %3,0ra

areagotu zen. Portaera hobe erakutsi zuen lan merkatuak, enplegua sortzen jarraitu zuelako eta langabezia tasa, hiruhilekoz hiruhileko, murriztu zuelako, urteko batez bestean %7,1ean kokatuta, hots, 2006ko mailan baino puntu luze bat beherago.

Alemaniak defizit publikorik gabe amaitu zuen 2007. urtea, lehenengo aldiz 1990. urtetik. Ekonomiaren hazkundera %2,5era iritsi zen, aurreko urteko mailatik lau hamarrenetara, baina hamarkada osoan lortutako emaitzarik gorenetarikoa. Moteltzearen arrazoi nagusia kontsumo pribatuaren bilakaeran datza. Izan ere, 2006. urtean gehikuntza tasa positiboak lortu bazituen ere, balio erantsiaren gaineko zerga hiru puntu igo izanak (%16tik %19ra) nabarmen galgatu zuen kontsumoa. Hala eta guztiz ere, kontsumo pribatuaren portaera txarra kontsumo publikoaren gorakada handiak, inbertsio osoaren baina bereziki ekipamenduko ondasunetan eginiko inbertsioaren sendotasunak eta, batez ere, esportazioen bultzadak konpentsatu zuten. Langabezia tasak behera egin zuen hilabetez hilabete eta %8,4an kokatu zen, azken sei urteko mailarik apalenean. Inflazioak, ordea, alderantzizko bidea hartu zuen eta %3,0ra igo zen laugarren hiruhilekoan. Hala ere, urteko batez bestea ez zen Europako Banku Zentralak ezarritako helburutik gehiegi urrundu.

Frantziako hazkunde ekonomikoa 2007. urtean Gobernuak aurreikusitako %2,0aren zertxobait azpitik kokatu zen eta %1,9ra mugatu, aurreko urtean jasotako aldakuntza tasa ia berdinduz. Lehenengo seihilekoan moteltzeko joera garbia izan arren, urtearen bigarren erdian suspertu eta %2,0aren gaineko hazkunde egonkorra erakustea lortu zuen, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren bilakaera onari esker. Oinarri sendo horiek pentsarazten dute 2008. urtean antzeko hazkunde tasa lortuko duela. Inflazioa ez zen gehiegi igo hilabete askotan, baina azken hilabeteetan, Europako herrialde gehienetan bezala, petrolioaren eta lehengaien etengabeak garestitzeak urte arteko aldakuntza tasa gorarazi zuen. Azkenik, lan merkatuak hobekuntza txikiak baina etengabeak lortu zituen eta langabezia tasa bederatzi hamarrenetan beheratu zuen, %8,3an kokatu arte.

Erresuma Batuak inguruneke hazkunderik garrantzitsuenetarikoa lortu zuen 2007. urtean, jarduera %3,1 areagotu baitzuen, 2006ko emaitza bi hamarrenetan gaindituz. BPGren urteko hazkundera lehenengo bederatzi hilabeteetako bilakaera onean oinarritu zen, denbora tarte horretan barne kontsumoak eta inbertsioak barne eskariari bizitasuna eman ziotelako. Laugarren hiruhilekoan, ordea, joera aldatu zen eta hala kontsumoak nola inbertsioak indarra galdu zuten kanpo arloaren aldean. Aldagai horrek utzi egin zion hazkundeari hamarrenak kentzeari eta ekarpen positiboa egin zion. Inflazioak gorakada garrantzitsua izan zuen martxoan (%3,0), baina harez geroztik moteldu zuen aldakuntza tasa eta urteko datua %2,3an geratu zen, 2006ko emaitza berdinduz. Lan merkatuak ere ekonomiaren bilakaera ona erakutsi zuen eta langabezia tasak %5,3an jarraitu zuen.

Espainiako ekonomiak hamarkada bikaina osatu zuen 2007. urtean, azken hamar urteetan %3,0 baino gehiago hazi zelako, salbuespen bakarra 2002. urtea izan zelarik. Hirugarren urtez jarraian, Espainiak G-7ko edozein herrialde baino gehiago hazi zen eta, 1995etik gertatzen denez, Europar Batasuneko zein Euroguneko batez bestea tarte handiz gaingitu zuen.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006		2007		
			IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	4,0	3,6	4,2	4,1	3,8	3,6	3,1
- Familien gastua	3,7	3,1	3,7	3,5	3,4	3,1	2,7
- Administrazioaren gastua	4,8	5,1	5,7	6,1	5,0	5,1	4,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,8	5,9	7,0	6,3	6,7	5,8	4,8
- Ekipamendurako ondasunak	10,4	11,6	13,0	13,1	13,1	11,6	8,6
- Eraikuntza	6,0	4,0	5,5	4,9	4,6	3,8	2,9
- Bestelako ekoizkinak	4,6	4,2	3,8	1,9	4,7	4,3	6,1
- Izakinen aldakuntza (*)	0,1	0,0	0,1	0,1	0,0	0,0	0,1
Nazio eskaria (*)	5,1	4,6	5,3	5,1	4,9	4,5	3,9
Esportazioak	5,1	5,3	5,7	3,6	4,7	7,7	5,1
Inportazioak	8,3	6,6	8,9	6,0	6,7	8,4	5,4
BPG (m.p.)	3,9	3,8	4,0	4,1	4,0	3,8	3,5
Nekazaritza eta arrantza	2,4	3,8	10,1	6,8	2,8	2,8	2,9
Energia	1,4	1,0	-3,2	-3,6	3,4	0,0	4,5
Industria	2,9	3,1	3,5	5,0	3,6	2,4	1,4
Eraikuntza	5,0	3,8	3,9	4,5	4,2	3,8	2,8
Zerbitzuak	4,1	4,2	4,2	4,2	4,2	4,3	4,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,5	3,4	4,5	3,2	3,5	4,1	2,9
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	3,5	2,8	2,6	2,4	2,4	2,4	4,0
- Enplegua (**)	3,2	3,0	3,1	3,3	3,1	3,0	2,5

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena (**). Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

2007ko hazkundera %3,8 izan zen, 2006an lortutakoa baino hamarren bat txikiagoa. Urtea aurrera egin ahala, hazkundera moteltzeko joera arina gauzatu zen, munduko gainontzeko ekonomietan gertatu zen bezala. BPGren bilakaerak oreka handiagoa erakutsi zuen, kanpo saldoak hazkundeari zazpi hamarren bakarrik kendu zizkiolako, aurreko urtean 1,2 puntu gutxitu zituen bitartean. Joera hori azken hiruhilekoan biziagotu zen eta kanpo arloaren

kenketa lau hamarrenetara mugatu zen. Beraz, barne kontsumoak eta inbertsioak indarra galdu zuten arren, hazkundeak sendoa izaten jarraitu zuen, bereziki ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioarenak. Kanpo arloaren hobekuntza esportazioen sendotasunean eta inportazioen apaltzean oinarritu zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, antzeko joera hauteman zen. Moteltzeko joera orokorra izan zen, salbuespenak energiaren adarra -urte osoan zehar bilakaera gorabeheratsua erakutsi baitzuen- eta zerbitzuak izan zirelarik. Azken hauek, bai merkaturatzen direnek bai besteek sendotasun handia islatu zuten. Industriak urteko batez bestean 2006ko hazkunde tasa gaingitu bazuen ere, beste sektoreek baino moteltzeko joera garbiagoa izan zuen. Eraikuntza ere kaltetuta atera zen eta puntu bat baino gehiago galdu zuen 2006an lortutako emaitzatik eta bi puntu inguru urte osoan zehar.

Lan merkatuari dagokionez, enplegu sorrera, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %3,0ra mugatu zen 2007. urtean, aurreko urtean lortutako emaitzaren bi hamarren beherago dagoelarik. Aldagai horretan ere moteltzeko joera hauteman zen urte osoan zehar. Hala eta guztiz ere, hazkunde tasa horri esker 550.000 lanpostu garbi sortu ziren. Lanpostu horiek bereziki eraikuntzan eta zerbitzuetan gauzatu ziren, gainontzeko adarretan murrizketak gertatu ziren bitartean. Beste aldetik, eta biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren datuen arabera, langabezia tasa %8,6ra igo zen laugarren hiruhilekoan.

Prezioen salneurriei dagokienez, kontsumoko prezioen indizeak %2,8ko hazkundera izan zuen urteko batez bestean, 2006ko emaitza baino zazpi hamarren apalagoa delarik. Lehen hiru hiruhilekoetan inflazioa %2,4aren inguruan eta aldaketa gutxirekin mantendu bazen ere, laugarren hiruhilabeteko gorakada sendoak norabidea aldatu zuen eta indize orokorra %4,0ra igoarazi zuen. Hala ere, urtearen batez besteko emaitza 1999tik aurrerako txikiena izan zen.

Administrazio publikoek demokrazia garaiko superabit handiena lortu zuten 2007. urtean, 23.368 milioi eurokoa eta BPGren %2,23aren baliokidea dena. Halaber, zor publikoa BPGren %36,2ra murriztu zen, azken hogeitaz urteko mailarik txikiena baita. Azken hiru urteetan superabita lortu da eta 2007koak %33,2an gaingitu du 2006an lortutakoa. Azpimarratu behar da Euroguneko bost herrialdek bakarrik lortu dutela superabita kontu publikoetan 2007an eta horien artean Espainia bigarren tokian dagoela, Finlandiaren ondoren.

Ekoizpena eta eskaria

Zenbait hiruhilekotan hazkunde egonkorra lortu eta gero, EAEko ekonomiaren jarduerak moteltzeko joera arina erakutsi zuen 2007. urtean zehar. Barne eskariaren urte arteko aldakuntza tasa murriztu zela estimatu da, baina inportazioen hazkunde erritmoa galgatu zenez, kanpo eskariaren ekarpen negatiboa txikiagoa izan zen. Barne eskariaren barruan, azken kontsumoak nabaritu zuen gehien erritmo galera. Familien zorpetze maila altua, inflazioaren gorakada eta aberastasun efektuaren jaitsiera aipatu behar dira kontsumoan eginiko gastuak izan duen moteltzea azaltzeko arrazoen artean. Kapital eraketa gordinak, berriz, oso gutxi murriztu zuen bere hazkunde erritmoa eta berriro izan zen barne eskariaren osagaien artean bizitasun handiena erakutsi zuena.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
Barneko azken kontsumoa	3,9	3,6	3,8	3,7	3,7	3,4	3,3
- Familien gastua kontsumoan	4,2	3,5	4,0	3,9	3,7	3,3	3,2
- Herri admin. gastua kontsumoan	2,8	3,7	2,9	3,0	3,7	4,2	4,2
Kapital eraketa gordina	6,0	5,9	6,1	6,6	6,6	5,8	4,5
Barne eskaria	4,5	4,2	4,4	4,5	4,5	4,1	3,7
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,5	-0,5	-0,6	-0,7	-0,7	-0,5	-0,2
Esportazioak	7,5	7,1	8,3	6,5	9,0	6,5	6,6
Inportazioak	7,7	7,3	8,5	7,0	9,2	6,7	6,4
BPG (m.p.)	4,2	3,9	4,0	4,1	4,1	3,8	3,6
Lehen arloa	-9,8	8,0	-5,3	8,1	11,5	2,0	10,8
Industria	4,9	3,8	4,6	4,9	4,6	3,7	2,3
Eraikuntza	5,1	4,0	5,0	4,5	4,4	4,3	2,9
Zerbitzuak	3,8	3,8	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2
Balio erantsi gordina	4,1	3,9	4,1	4,1	4,1	3,7	3,7
Ekoizkinen zerga garbiak	5,3	4,3	3,6	4,0	4,2	4,8	4,4

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Jarduera adarrei dagokienez, urteko azken hiruhilekoan industriak eta eraikuntzak areagotu zuten aurreko hilabeteetan hasitako motelaldia. Zerbitzuek, ordea, ibilbide egonkorrari eutsi zioten eta merkaturatzen ez diren zerbitzuek gorakada sendoa izan zuten azken hilabeteetan. Urteko batez bestean neurtuta, ekoizpen arloen bilakaerak hazkunde erritmoak bateratzeko joera ekarri zuen.

Horiek horrela izanda, BPGk %3,6ko hazkunde tasa jaso zuen 2007ko laugarren hiruhilekoan, Eustatek aurreko hiruhilabeterako estimatu zuen emaitza baino bi hamarren gutxiago. Laugarren hiruhilabeterako estimazioek BPGren 2007ko hazkundea %3,9an kokatu dute, 2006ko %4,2aren azpitik.

Ekoizpen jarduera

EAEko ekonomiaren balio erantsia gutxiago hazi zen 2007. urtean aurreko urtean baino. Hirugarren hiruhilabeterako moteltze arinaren ondoren, laugarrenean jarduera egonkortu zela estimatu da. Lehen arloa suspertu zen eta zerbitzuek bultzada garrantzitsua ezagutu zuten. Txanponaren ifrentzuan industriaren eta eraikuntzaren bilakaera aipatu behar da, beste hiruhileko batez hazkunde tasa gutxitu zutelako.


Industriak atzera egin zuen berriro 2007ko laugarren hiruhilekoan, urteko aldakuntza erritmoa epe horretan %2,3ra mugatu zelarik. Industriaren bilakaera motelago hori bat dator industria produkzioaren indizeak helburu ekonomikoaren arabera osagai guztietan erakusten duen norabidearekin. Urteko laugarren hiruhilekoan, portaera onena izan zuten osagaiak ekipamendurako ondasunak, bitarteko ondasunak eta, bereziki, kontsumo iragankorreko ondasunak izan ziren. Beste aldetik, aldakuntza tasa negatiboak kontsumo iraunkorreko ondasunetan eta energiaren ekoizpenean gauzatu ziren. Analisia IPiren adarren bilakaeran fokatzen bada, hazkunde biziena lortu zuten adarrak metalurgia eta artikulua metalikoak, makineria, eta material elektrikoa eta garraiokoa izan dira, EAEko industriaren egituraren pisu handia duten adarrak baitira. Hala ere, industriaren koiuntura islatzen duten beste adierazle batzuek, hala nola Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruak, ekoizteko ahalmenaren erabilerak eta bertoko enpresarien konfiantza maila altuak emaitza onak jaso zituzten laugarren hiruhilekoan.

Eraikuntzak berriro galdu zuen bizitasuna laugarren hiruhilekoan, 2007ko urte osoan gertatu zen bezala, etxebizitzaren atalean bizi den geldotasunaren ondorioz. Hiruhilabetearen behin argitaratzen diren kontu ekonomikoaren arabera, arlo horretako balio erantsia %2,9 hazi zen laugarren hiruhilekoan, hiru hilabete lehenago %4,3 gehitu zen bitartean. Ahultzeko joera sektorearen adierazle nagusietan hauteman da. Eskainitako etxebizitzaren kopuruak, notarioek jasotako salerosketek edo higiezinaren salneurriak garbi adierazten dute etxebizitzaren merkatua beherantz doala. Lan merkatuaren analisisan, Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruak behera egin zuen berriro. Hain zuzen ere, abenduan arlo horretako afiliatuak %-0,9 gutxiago ziren.


Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eurostat.

Obra zibilaren arloak ere ez zion aurreko hiruhilabeteko bizitasunari eutsi. Izan ere, Sustapen Ministerioak lizitazio ofizialaz argitaratu dituen datuek horixe iradokitzen dute, laugarren hiruhilekoan beherakada garrantzitsua nozitu zutelako. Hala eta guztiz ere, EAEn aurreikusten diren eta gaur egun ere garatzen ari diren azpiegituren hedapenak ziurtatzen du ekarpen positiboa egingo diola balio erantsi guztizkoari, ekonomiaren sektore dinamikoena izateari utziko badio ere.

Zerbitzuetako jarduerak bultzada garrantzitsua jaso zuen 2007ko laugarren hiruhilekoan eta %4,2 areagotu zuen urte arteko hazkunde tasa, aurreko hiruhilekoan izan zuen igoera sei hamarrenetan gaindituz. Bizitasun horren atzean, merkaturatzen ez diren zerbitzuak daude, %7,4 hazi baitziren. Merkatuko zerbitzuek, berriz, hazkunde tasa egonkorra eskaini zuten, %3,6ko aldakuntza tasa jasota.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
Industria							
Balio erantsi gordina	4,9	3,8	4,6	4,9	4,6	3,7	2,3
Industria produkzioaren indizea (*)	4,3	3,1	3,8	3,9	3,9	2,8	1,8
Industria giroaren indizea	-3,9	3,1	6,4	2,0	7,3	4,4	-1,5
Ekoizteko ahalmenaren erabilera (%)	80,6	82,1	80,9	80,8	81,2	84,5	82,0
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	-0,6	0,7	-0,1	0,3	0,7	1,0	0,9
Eraikuntza							
Balio erantsi gordina	5,1	4,0	5,0	4,5	4,4	4,3	2,9
Eskainitako etxebizitzak	12,4	14,2	11,8	8,8	10,9	14,2	22,2
Obra berriko baimenak	-16,9	-26,8	-24,6	-26,3	-16,0	-37,8	-27,2
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,7	2,2	2,7	3,4	2,7	2,0	0,7
Zerbitzuak							
Balio erantsi gordina	3,8	3,8	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2
Hegazkinen bidezko trafikoa	4,4	11,1	5,9	9,5	12,0	13,2	9,7
Hoteletan igarotako gaualdiak	11,3	3,0	15,5	6,6	6,1	0,0	-0,6
Hoteletako okupazioa	47,9	46,6	44,0	36,2	48,4	58,4	43,3
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,3	3,3	3,3	3,4	3,5	3,3	3,2
Enplegua (barne merkataritza indizea)	1,2	2,1	0,6	1,3	2,0	2,4	2,7

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Oficemen eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eskuragarri dauden zerbitzuetako adierazleek, oro har, bilakaera ona izan dute 2007. urteko azken hiru hilabeteetan. Hala aireko trafikoaren nola Gizarte Segurantzako afiliazioaren estatistikek beren hazkunde tasak areagotu dituzte. 2007ko azken hilabeteetan, Gizarte Segurantzako altak batez ere ostalaritzan, garraioan, ikerketa gehi garapenean, bankan eta finantza arloko jarduera laguntzaileetan gauzatu dira. Beste aldetik, barne merkataritzako indizeak adierazi du merkataritzaren barruan txikizkako arloak moteltzeko zantzu txikiak erakutsi zituela, bereziki janarien arloan eta etxebizitzetarako ekipamenduan. Aitzitik, pertsonaren ekipamendurako produktuen salmentak nabarmen areagotu zuen bere urte arteko aldakuntza tasa. Baina zerbitzuetako adierazle guztiek ez zuten bilakaera ona erakutsi eta, esate baterako, hoteletan igarotako gaudien estatistikak beherakada izan zuen 2007. urteko azken hilabeteetan.

Eskariaren osagaiak

Eskariaren ikuspegitik, 2007ko amaieran EAEko ekonomiak lehenago markatutako joerari eutsi zion, hots, barne eskariak sendotasuna erakutsi zuen eta aurrekoetan baino gutxiago hazi arren oraindik %3,5eko tasa gainditu zuen, eta kanpo eskariak ekarpen negatiboa baina txikia egin zion BPGren hazkunderari. Barne eskariak, beraz, indarra galdu zuen aurreko epealdien aldean, inbertsioa eta kontsumoa gutxiago hazi zirelako.


Barneko azken kontsumoan eginiko gastua %3,3 hazi zen urte arteko aldakuntza tasan 2007ko laugarren hiruhilekoan, hirugarrenean lortutako emaitza hamarren bakar batean jaitsiz eta aurreko hiruhilekoetan izandako moteltze leuna baina etengabea luzatuz. Hazkunde erritmoaren apaltzea familien kontsumoak eragin zuen, kontsumo publikoak aurreko hiruhilekoan jasotako emaitza bertsua izan zuen bitartean, %4,2ko aldakuntza tasa berriro lortu zuelako.

EAEko familien kontsumoak beheranzko joerari eutsi zion eta 2007ko azken hiruhilekoan %3,2ko gehikuntza tasa jaso zuen. Laugarren hiruhilabetetako argitaratu diren koiunturako adierazleek garbi sinalatzen dute kontsumoak indarra galdu zuela. Kontsumitzaileen konfiantza adierazlea nabarmen okertu zen aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean, seguruena finantza merkatuetako ekaitzak eta berau komunikabideetan izan duen trataerak sortu duten ziurgabetasunak eraginda. Merkataritzako adierazle kuantitatiboek moteltzeko joera izan zuten. Automobilaren matrikulazioak, ordea, bilakaera positiboa izan zuen, baina datu hori kontuz hartu behar da, zeren eta 2008. urtean indarrean sartu den matrikulazio zerga berriak erosketak aurreratzera animatu baitzituen asko, estatistikaren ibilbidea desitxuratuz.


Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


Kontsumo pribatua




Kontsumo publikoa




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Kontsumoaren norabide aldaketaren atzean dauden arrazoiak dira, alde batetik, urteko azken hilabeteetan inflazioak izan zuen gorakada, errenta erabilgarria termino errealean murriztu zuena. Beste aldetik, familien aberastasun efektua gutxiago hazi da eta finantza merkatuetako baldintzak zorrotzagoak dira gaur egun. Bi arrazoi horiek ere familien kontsumoa gutxitu dezakete eta, aitzitik, beraien aurrezki tasa areagotu.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
Kontsumo pribatua							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	4,2	3,5	4,0	3,9	3,7	3,3	3,2
BMI txikizkaria	2,9	2,5	0,4	2,9	2,2	3,0	2,1
Azalera handiko merkataritza indizea(*)	1,6	-0,2	0,8	0,5	0,1	-0,5	-0,9
Landunak txikizkarian	1,0	1,7	-0,2	0,6	1,4	2,1	2,6
Automobil matrikulazioa (*)	-2,2	-0,9	-3,6	-3,4	-2,6	0,4	2,2
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	96,3	96,0	97,0	99,0	101,0	96,0	88,0
Kapital eraketa gordina							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	6,0	5,9	6,1	6,6	6,6	5,8	4,5
IPI ekipamendua EAE (*)	9,2	6,6	9,4	9,3	7,6	5,8	3,7
IPI ekipamendua Estatua (*)	7,9	5,9	9,6	8,4	5,8	5,6	3,8
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	2,8	---	17,4	12,3	10,7	16,6	31,0
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-2,2	0,0	-0,8	0,8	1,4	-0,9	-1,3

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Ekoizpen jardueraren gaineko igurikimenek itxuraz okerrera egin duten arren eta finantza kostuak handiagoak badira ere, enpresariaren aurreikuspenak baikorrak dira oraindik. Hiruhilekako kontu ekonomikoen estimazioek inbertsioaren hazkundea %4,5ean kokatu dute azken hiruhilekorako. Tasa hori hirugarren hiruhilekokoa baino txikiagoa da, baina agerian uzten du osagai horrek oraindik gordetzen duen sendotasuna, barne eskariaren osagai dinamikoena baita. Azpimarratzekoa da ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordinaren hazkundea, eraikuntzan egindako inbertsioak ekonomiaren analisigileek hautematen zuten erritmo bizia berriro moteldu zuen bitartean. Ekipamendurako ondasunen barneko ekoizpena islatzen duen estatistikak hazkunde erritmoa moteldu zela hauteman du,

baina mota horretako ondasunen inportazioak gorakada garrantzitsua izan zuen, bereziki garraio materialarekin zerikusia duten inportazioak.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Udako hilabeteetan AEBetan hasi zen hipoteka krisiaren ondorioek eta lehengaien zein oinarritzko elikagaien etengabeko garestitzeak baldintzatu zuten nazioarteko testuinguru ekonomikoa 2007ko azken hilabeteetan. Arazo horiek hor egon arren, munduko ekonomiak %4,9ko hazkunde tasa lortu zuen, 2006ko emaitza baino hamarren bakar bat txikiagoa baita. Munduko merkataritzak, berriz, ekonomiarena bezalako joera bat erakutsi zuen eta %8,7 areagotu zen, Munduko Bankuak egin dituen lehen estimazioen arabera.

Munduko merkataritzaren gorakada ekonomiaren hazkundera moteltzen ari zen une batean gertatu zen eta, horren ondorioz, nazioarteko salmenten bilakaera ere moteltzeko joera batean murgildu zen, urteko azken hilabeteetan biziagotu zena. Hori guztia horrela izan arren, munduko esportazioak %9,2 hazi ziren eta inportazioak, berriz, %8,3, bi kasuetan 2006an baino ia puntu oso bat gutxiago.

Testuinguru horretan, Txina nabarmendu zen herrialde esportatzaileen artean, 2007. urte hasieran munduko bigarren esportatzailearen tokia bereganatu zuelako, AEBen ordeaz. Azken hiru hamarkadetan txinatar ekonomiak ezagutu duen bizitasun apartak iragartzen du salgaien munduko esportatzaile nagusia izango dela laster. Hain zuzen ere, 2007ko abuztuan Alemania gainditu zuen lehenengo aldiz, nahiz eta urteko balantzean ez zuen lortu lehenengo postuan kokatzea. Gaur egun, Txinak ondasunen munduko merkataritzaren %8aren ingurua bereganatzen du.

EAEko ekonomiak aldeko egoeraz baliatzen jakin zuen eta kanpo saldoak BPGren hazkundeari egiten dion ekarpen negatiboa hiruhilekoz hiruhileko murriztu zuen, esportazioen eta inportazioen hazkunde erritmoak gero eta berdintsuagoak izan zirelako. Azpimarratzekoa da bigarren hiruhilabeteko emaitza, gainontzekoetan baino hazkunde tasa handiagoak jaso zirelako. Hala ere, egonkortasuna izan zen kanpo arloaren ezaugarri nagusia, hala esportazioetan nola inportazioetan, termino errealetan %6,5aren inguruan hazi zirelako.


Zehazkiago adierazita, atzerrira bidalitako esportazio guztiak, termino nominaletan, 18.834,3 milioi eurora iritsi ziren 2007. urtean, aurreko urteko emaitza %14,1ean gaindituz. Inportazioak, berriz, ez ziren iritsi 2006ko maila garrantzitsura, baina %9,4 areagotu ziren eta

18.762,1 milioi eurora heldu. Bi aldakuntza horien ondorioz, eta bi urtez jarraian EAEk atzerriarekin duen merkataritza balantzak defizita jaso ondoren, ondasunen atzerriarekiko saldo nominalak 72 milioi euroak zertxobait gainditzen duen superabit bat eskuratu zuen.


Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

7. Irudia


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Japonia



Iturria: ELGE, Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila eta Japoniako Finantza Ministerioa.

Energiakoak ez diren salgaien merkataritzak antzeko datuak eskaini zituen. Hain zuzen ere, energiaren etengabeko garestitzeak nazioarteko salerosketetan izan dezakeen eragina kenduta, esportazioak %14,8 areagotu ziren, 2006. urtean baino zazpi hamarren gehiago eta 2000. urtetik aurrera inoiz lortutako emaitzarik handiena baita. Energiatz bestelako inportazioek, berriz, inportazioen guztizkoak baino bilakaera hedakorragoa izan zuten eta %17,1eko

gorakada jaso, azken urteetan izandako tasetatik hurbilago dagoelarik. Bi fluxu horien konbinaketaz, energiaz bestelako saldoak 4.258 milioi euroko kopurua gaintitu zuen, serie estatistika osoan inoiz jaso den superabitik handiena dena.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERIAN

9. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2007-IV
	2006	2007						
			2006	2007				
			IV	I	II	III	IV	
Guztira	16,4	14,1	14,1	9,2	16,6	17,2	13,6	4.967.001
Ez-energetikoak	14,1	14,8	16,2	10,4	17,8	17,6	13,5	4.641.959
Ekoizkin energetikoak	51,4	6,4	-9,4	-3,6	3,1	13,1	14,2	325.043

Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europar Batasuna berriro izan zen EAEko ekonomiaren bezero nagusia eta esportazio guztietako %67 bereganatu zuen. Hori dela eta, Europako ekonomiaren hazkundera ezinbestekoa izan zen kanpo arloaren garapenerako. 2007ko amaieran munduko ekonomiaren motelaldia gehiago nabaritu zen arren, EAEko bazkide nagusien inportazio erritmoak biziak izan ziren oraindik. EAEko esportazioak ekonomiaren egoera onaz baliatu ziren eta Alemanian, Frantzian edo Erresuma Batuan saldutakoaren hazkundera erritmoari eutsi ez ezik, herrialde horien inportazio erritmoa baino gehiago hazi ziren (8. irudia). Txanponaren beste aldean, EAEko ekoizkinek arazoak izan zituzten AEBetako eta Italiako merkatuetan, eta bietan kuota galdu zuten.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERITIK

10. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2007-IV
	2006	2007	2006	2007				
			IV	I	II	III	IV	
Guztira	20,2	9,4	19,5	4,7	12,7	5,9	13,6	5.146.692
Ez-energetikoak	14,6	17,1	22,9	20,1	21,7	15,2	12,2	3.559.521
Ekoizkin energetikoak	32,9	-5,2	12,2	-22,0	-3,5	-9,9	17,0	1.587.171

Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Ondasunen inportazioak (ziklo-joera)


8. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak


Alemania




Frantzia




Italia




Espainia



Erresuma Batua



AEB




Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

EAEko enpresariak eskari zorroaren bilakaeraz adierazi dituzten iritziak baikorrak dira eta EAEko ekoizkinek bizi duten une gozoa baieztatzen dute. 2007. urtean zehar gertatu ziren gorabeherak handiak izan ziren arren, salmenten aurreikuspenak positiboak izan ziren, bereziki bigarren hiruhilekoan, 2000. urtetik aurrera lortutako emaitzarik onenetariko bat jaso baitzen. Ekonomiaren bilakaerak gaur eguneko aurreikuspenen aldean ez badu aldaketa handirik aurkezten, salmenten joerak, hala atzerrian nola Estatuko gainontzeko erkidegoetan, ona izaten jarraituko duela espero da.

EAEko industriaren eskari zorroa(*)

9. irudia



(*) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoen arteko aldea).

Iturria: Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerioa.

Esportazioen analisisia arantzel atalen arabera egiten denean, ez da aldakuntza handirik hautematen aurreko joeren aldean. Izan ere, arlo kimikoak izan ezik adar guztiek hazkunde tasa positiboak jaso zituzten urteko balantzean eta kasu gehienetan aurreko urtekoak baino handiagoak. Beste behin, metal arruntak eta beraien manufakturek eta ekipamendurako ondasunek, hots, egituraren pisu handiena duten adarrek, hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituzten urte osoan zehar, bereziki bigarren hiruhilekoan, alde batetik makinak eta tresnek eta beste aldetik burdinaren eta altzairuaren galdaketak izan zuten bultzadari esker. Kautxua eta plastikoa izeneko atalak urteko balantze positiboa jaso zuen, baina moteltzeko joera garbia erakutsi zuen urtean zehar eta azken hiruhilekoan beherakada izan zuen. Energiako ekoizkinek, prezioen etengabeko igoerari esker, bilakaera sendotu zuten, urte hasieran jaitsiera jaso bazuten ere.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERRIAN

11. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2006	2007				2007-IV
			IV	I	II	III	IV	
Guztira	16,4	14,1	14,1	9,2	16,6	17,2	13,6	4.967.001
Nekazaritzakoak	10,2	18,6	2,1	14,3	23,6	7,2	28,7	169.706
Energia ekoizkinak	51,4	6,4	-9,4	-3,6	3,1	13,1	14,2	325.043
Kimikoak	0,1	-6,2	9,7	-8,2	1,9	-1,1	-16,8	90.229
Kautxua eta plastikoa	40,5	6,4	76,8	15,2	18,7	7,5	-10,2	359.593
Papera	5,5	11,2	11,6	9,2	16,8	10,8	7,9	122.557
Metalak eta manufakturak	17,4	23,3	21,5	20,6	25,6	39,0	10,9	1.294.767
Ekipamendu ondasunak	10,3	12,4	7,7	4,0	13,4	9,7	21,8	2.350.595
- Makinak eta tresnak	10,6	13,1	15,0	6,2	12,6	13,3	19,5	1.117.081
- Garraio materiala	10,0	11,8	1,7	2,3	14,0	6,4	24,0	1.233.514
Bestelako manufakturak	13,4	14,2	20,8	20,7	18,5	13,5	4,2	215.316
Sailkatu gabeak	14,5	12,9	-20,7	-19,8	23,5	41,1	27,8	39.196

Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERRITIK

12. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2006	2007				2007-IV
			IV	I	II	III	IV	
Guztira	20,2	9,4	19,5	4,7	12,7	5,9	13,6	5.146.692
Nekazaritzakoak	-0,1	5,0	-3,8	2,7	1,6	5,1	10,5	234.720
Energia ekoizkinak	32,9	-5,2	12,2	-22,0	-3,5	-9,9	17,0	1.587.171
Kimikoak	20,2	-1,8	20,3	5,9	-15,7	10,5	-5,8	124.539
Kautxua eta plastikoa	23,2	17,6	23,4	13,3	34,2	13,9	11,1	232.825
Papera	11,3	9,7	-4,0	1,6	14,0	11,7	12,1	97.581
Metalak eta manufakturak	27,1	21,6	42,2	38,1	38,6	17,7	-2,2	1.187.789
Ekipamendu ondasunak	6,1	18,4	17,4	12,3	10,7	16,6	31,0	1.367.083
- Makinak eta tresnak	12,6	9,9	24,2	19,3	14,3	14,8	-4,1	698.289
- Garraio materiala	-5,4	35,8	4,3	1,3	3,2	20,7	112,2	668.794
Bestelako manufakturak	9,0	15,4	13,4	16,4	16,2	13,6	15,4	309.779
Sailkatu gabeak	-52,1	-9,8	-49,3	-16,1	-26,9	0,3	6,8	5.205

Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Energiaraz bestelako inportazioek, berriz, bilakaera ona izan zuten 2007. urtean, baina hazkunde gero eta txikiagoa izan zen urtea aurrera zihoan ahala. Metal arruntak eta beren manufacturek, eta makinak eta tresnek, urteko batez bestean gorakada garrantzitsua lortu zuten arren, azken hiruhilekoan beherantz egin zuten eta aldakuntza tasa negatibora igaro ziren, urteko lehen hiru hiruhilekoetan gehikuntza tasa sendoak lortu ondoren. Papergintzak bere bilakaera hobetu zuen, 2006ko amaieran nozitu zuen bat-bateko jaitsieraren ondoren. Nekazaritzako ekoizkinen inportazioak ere gero eta tasa handiagoak jaso zituen urtea aurrera zihoan neurrian. Bilakaera ez hain positiboa izan zutenen artean, arlo kimikoak gorakadaz eta beherakadaz jositako norabidea erakutsi zuen 2007. urtean zehar, eta energiako produktuek urteko azken hilabeteetan suspertu baziren ere, azken lau urteetako emaitzarik txarrenea jaso zuten.

Energiakoak ez diren esportazioen helburua aztertuta, eremu nagusi guztiek hazkunde garrantzitsuak izan zituzten. Europar Batasuna EAEko ekonomiaren merkataritza bazkide nagusia izan zen berriro eta eremu horretara bidali ziren EAEko produktu ez-energetikoen %70, bereziki Frantziara, Alemaniara eta Erresuma Batura. Hiru herrialde horietan salmentak asko areagotu ziren urte osoan zehar, salbuespen bakarra hirugarren hiruhilekoan Erresuma Batuan saldutakoak izan zuen beherakada iragankorra izan zelarik, ekipamendurako ondasunen esportazioak indarra galdu zuelako. Italian bideratu ziren esportazioak, ordea, europar eremuko salbuespena izan ziren, ia urte osoan zehar jaitsiera garrantzitsuak jaso zirelako.

Urte hasiera harrigarri baten ondoren, Japoniara bidalitako salmentak oso azkar moteldu ziren eta urte amaieran aldakuntza tasa negatiboetara igaro ziren. Alderantziz gertatu zen AEBetan, zeren eta bigarren hiruhilabeteko jaitsiera nabarmenaren ondoren, hurrengo datuak ez baitziren horren etsigarriak izan, nahiz eta oraindik urte arteko aldakuntza tasak negatiboak izan ziren. Estatubatuarra bezain lehiakor den merkatu batean sartzeko dauden ohiko zailtasunei euroaren sendotasuna gehitu behar zaio, Europako ekoizkinak garestitzen baititu bertako ekoizleen produktuen aldean. ELGE erakundetik kanpo herrialde guztietan nabarmen hazi ziren EAEko esportazioak urtean zehar. Hala eta guztiz ere, Errusiak eta, bereziki, Brasilek EAEn egin zituzten erosketak modu deigarri batean moteldu zituzten laugarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, Brasilerazuzendutako esportazioak tasa negatiboa jaso zuen azken hiruhilekoan.

EAE-K ATZERRIAN SALDUTAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN HELBURUA

13. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2006	2007				2007-IV
			IV	I	II	III	IV	
Guztira	14,1	14,8	16,2	10,4	17,8	17,6	13,5	4.641.958
ELGE	14,6	9,9	16,7	11,6	14,8	7,2	6,2	3.555.581
Eurogunea	16,4	10,4	21,0	13,0	17,6	7,7	3,5	2.469.433
Europako kide berriak	26,5	42,3	15,4	35,4	51,2	34,7	47,5	246.681
Europar Batasuna 25	15,8	10,8	20,1	12,7	18,0	6,6	6,1	3.109.410
Frantzia	10,4	6,8	12,9	7,1	12,3	4,9	2,8	765.733
Alemania	23,5	13,9	34,4	25,7	18,0	2,5	10,0	725.082
Erresuma Batua	3,4	13,5	7,4	11,2	19,1	-1,3	25,7	341.012
Italia	24,8	-2,7	25,3	-0,8	3,4	-1,7	-11,0	334.182
ELGEko besteak (1)	11,8	9,8	2,1	8,8	4,7	12,8	13,4	664.055
AEB	16,3	-8,4	-7,0	3,9	-26,0	-4,0	-2,0	148.730
Japonia	-28,3	-1,4	34,4	46,3	40,7	28,4	-42,5	14.949
ELGETik kanpokoak	12,0	38,9	13,9	4,7	34,6	72,7	46,8	1.086.377
Errusia	54,9	41,3	109,5	71,1	39,8	60,6	9,9	31.956
Txina	28,1	15,5	48,1	-15,4	29,1	29,4	29,7	88.104
Brasil	-14,1	27,9	68,9	40,4	81,6	35,0	-11,4	74.156
Munduko besteak	12,1	42,9	3,5	2,1	30,4	82,5	59,5	892.161

Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Azkenik, energiakoak ez diren inportazioek bizitasun handia erakutsi zuten eremu guztietan. Hain zuzen ere, ELGEko herrialdeetan eginiko erosketak %16,8 hazi ziren eta eremu horretatik kanpo dauden herrialdeetan, guztira, %18,0. Europar Batasunaren barruan, Alemania, Frantzia eta Italia izan ziren salmentak EAEn gehien areagotu zituztenak, hiru kasuetan hazkunde tasa bi zenbakietara iritsi baitzen. Aitzitik, Erresuma Batua ez zen gai izan urteko lehen hiru hilabeteetako emaitza onari eusteko eta beherakada garrantzitsua jaso zuen gainontzeko hiruhilekoetan. Esportazioetan ez bezala, jatorria AEBetan duten inportazioek oso bilakaera bizia erakutsi zuten eta urte osoan zehar hazkunde garrantzitsuak izan zituzten, neurri handi batean dolarraren ahultasunaren ondorioz. Japonian eginiko erosketen bilakaera ez zen horren deigarria, urteko azken hiruhilekoan gertatu zen beherakadarengatik. ELGE erakundetik kanpo herrialdeen artean, Txinak eta Errusiak urteko balantzean izan zituzten gorakada handiak azpimarratu behar dira. Brasiletik inportatutakoak, ordea, aurreko urteko balioen aldean beherakada handia izan zuen.

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2006	2007				2007-IV
			IV	I	II	III	IV	
Guztira	14,6	17,1	22,9	20,1	21,7	15,2	12,2	3.559.521
ELGE	11,4	16,8	15,8	16,8	19,4	12,7	18,0	2.801.603
Eurogunea	12,3	19,0	16,3	16,2	20,9	14,3	23,5	2.148.289
Europako kide berriak	27,3	44,9	39,0	71,7	37,2	41,5	34,7	102.827
Europar Batasuna 25	11,1	14,9	14,0	14,9	16,5	10,5	17,0	2.495.458
Frantzia	14,9	11,2	18,5	19,0	13,8	7,4	5,7	508.525
Alemania	3,3	38,4	11,2	6,7	34,5	28,4	82,3	871.224
Erresuma Batua	2,6	-13,3	-0,6	2,7	-10,4	-13,6	-29,2	180.167
Italia	9,6	18,2	14,6	24,8	24,0	19,2	6,9	334.125
ELGEko besteak (1)	17,5	32,6	35,8	38,4	39,9	29,1	25,1	396.020
AEB	30,6	49,4	59,4	20,0	65,9	64,3	47,1	131.007
Japonia	-1,3	7,5	11,4	0,8	18,7	19,8	-5,9	42.011
ELGETik kanpokoak	25,6	18,0	50,4	31,1	28,9	22,3	-5,1	757.918
Errusia	17,5	10,4	23,1	22,2	24,3	8,3	-10,8	156.159
Txina	38,1	45,9	81,1	55,4	56,6	49,0	29,1	302.031
Brasil	12,4	-14,5	192,4	-5,2	1,0	33,8	-64,4	19.918
Munduko besteak	24,0	8,2	36,0	26,3	21,6	8,0	-17,7	324.468


Oharra: Hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


Lan merkatua

EAEko lan merkatuak aurreko urteetan izan zuen bilakaerari eutsi zion 2007. urtean ere eta enplegu berriak sortzen jarraitu zuen, 2006. urtean lortutako egoeratik aldakuntza gutxi egon zirelarik. Hala ere, mugimenduen tamaina oso ezberdina da lan merkatua inkesten bidez edo administrazioaren erregistroen bidez aztertzen bada. Zehazkiago adierazita, enpleguaren analisisan erabiltzen diren lau estatistika iturri nagusiek balantze positiboa eskaini dute urteko batez bestearentzat. Halaber, langabeziaren egoeraz argitaratu diren datuek adierazten dute urteko batez bestean langabe gutxiago zegoela 2007an 2006an baino eta langabezia tasa ere murriztu zela. Hala ere, estatistiken bat etortze hori ez da iristen aldagai nagusien hiruhilabetekako bilakaerara eta haietako batzuek egonkortasuna adierazten duten bitartean, beste batzuek zabalera handiko gorakadak eta beherakadak hauteman dituzte (10. irudia eta 15. taula).


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Izan ere, hala Eustatek prestatzen dituen hiruhilabetekako kontu ekonomikoek nola Gizarte Segurantzako afiliatuen erregistroak hazkunde sendoa erakutsi dute 2007. urterako. Bilakaera horretan, batez besteko emaitza 2006koa baino zertxobait hobea da eta hiruhileko batetik hurrengora egonkortasuna ikusten da, 2008ko lehen hilabeteetara ere luzatu dena. Aitzitik, lan merkaturako berariaz diseinatu diren bi inkestek, eta bereziki INEren BAI inkestak, enplegua aurreko urtea baino gutxiago hazi zela estimatu dute. Hiruhilabetekako bilakaera ere oso ezberdina da eta BJAk enpleguaren sorreran eskaintzen duen moteltze argiaren aldean, INEren estatistikak bizkortasuna hauteman zuen urte amaieran.

ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
Landunak (BJA)	1,4	1,1	2,1	2,1	1,1	1,1	0,3
Lanpostuak (hiruhileko kontuak)	2,3	2,4	2,2	2,6	2,4	2,3	2,3
Gizarte Segurantzako afiliatuak	2,3	2,6	2,2	2,9	2,9	2,4	2,4
Langabeak BJA inkestan	-28,9	-19,7	-30,1	-32,3	-17,7	-14,9	-8,5
INEMeko langabeak	-4,7	-6,4	-8,0	-9,7	-8,2	-4,5	-2,6
Langabezia tasa (BJA)	%4,1	%3,3	%3,4	%3,4	%3,4	%3,1	%3,1

Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INEM.

Eustaten kontabilitateko datuen arabera, EAEko ekonomiaren moteltzeak ez du eraginik izan enplegua sortzeko erritmoan, baina bai ekoizkortasun irabazien hazkundean, urte osoan ia puntu erdi bat murriztu zirelako, bereziki 2007ko azken laurdenean. Ekoizkortasunaren bilakaera industriaren aurrerapenei oso lotuta egon arren, arlo horrek 2006an lortutakoak baino irabazi nabarmen apalagoak izan zituen 2007an, industria jardueretan sortu ziren lanpostuen ondorioz. Aitzitik, eraikuntzak bere emaitzak hobetu zituen urtean zehar eta ekonomiaren guztizkoak izan zuen ekoizkortasun irabazia gaingitu zuen.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
Enplegua guztira	2,3	2,4	2,2	2,6	2,4	2,3	2,3
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	1,9	1,5	1,8	1,5	1,7	1,4	1,3
Enplegua lehen arloan	0,8	-1,9	-3,7	2,2	-8,6	-4,6	4,0
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	-10,5	10,3	-1,7	5,8	22,0	6,9	6,5
Enplegua industrian	-0,6	0,7	-0,1	0,3	0,7	1,0	0,9
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	5,5	3,1	4,7	4,6	3,9	2,6	1,4
Enplegua eraikuntzan	3,7	2,2	2,7	3,4	2,7	2,0	0,7
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	1,3	1,8	2,2	1,1	1,7	2,3	2,2
Enplegua zerbitzuetan	3,3	3,3	3,3	3,4	3,5	3,3	3,2
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	0,5	0,4	0,5	0,3	0,1	0,3	1,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Sektoreen ikuspegitik, eraikuntzak aurreko urtean baino askoz lanpostu gutxiago sortu zituen (%2,2 2007. urtean eta %3,7 2006an), etxebizitzaren eraikuntzak nozitu zuen moteltzearen ondorioz. Joera hori laugarren hiruilekoan areagotu zen. Industriak, ordea, atzean utzi zuen aurreko bi urteetako enplegu galera eta milioi laurden bat lanpostura iritsi zen berriro, urte arteko gehikuntza tasa %0,7 izan zelarik. Azkenik, zerbitzuek sortu zituzten lanpostu gehienak eta hazkunde tasa handiena ere arlo horrek bereganatu zuen. Herri administrazioarekin lotura duten zenbait jarduera, hala nola irakaskuntza eta osasuna, eta eremu horretatik kanpo beste adar tradiziozko batzuk (ostalaritza, aisialdiko jarduerak, banka, eta abar) izan ziren zerbitzuetako enplegua sortu zutenak.

Enplegua sexuaren arabera aztertzen bada, BJA inkestaren datuek adierazten dute lanpostu berriak bete zituztenak bereziki gizonak izan zirela, urteko batez bestean beraien landunen hazkundera %1,5era iritsi baitzen, emakumeena, berriz, %0,6ra mugatu zen bitartean. Hala ere, eraikuntza pairatzen ari den ahultasunak ia bakarrik gizonengan du eragina eta, horren ondorioz, urteko azken hilabeteetan hauek hauteman zuten bereziki enplegu sorreraren apaltzea. Urte osoko emaitzari erreparatuta, enplegu tasa bi kolektiboetan hazi zen. Lisboako adierazleak erabilita, emakumeen enplegu tasa hiru hamarren igo zen azken urtean, %57,0tik %57,3ra. Beraz, 2010. urterako eta talde horretarako ezarri zen %60ko tasara heltzea lortu daiteke.

Analisia adinaren arabera egiten denean, garbi geratzen da lan bizitza urte jakin batzuen artean egiten dela, hain zuzen ere, 25 eta 44 urte bitartean. Adin tarte horretako enplegu tasa biztanleriaren %82,8ra igo zen. Helduenen taldeak ere zertxobait handitu zuen bere enplegu tasa, baina aldakuntzak oso txikiak dira eta zaila izango da Lisboako estrategian ezarri zen %50eko tasara iristea. Beste aldetik, lan merkatuan parte hartzen duten 25 urtetik beherako gazteen ehunekoa berriro gutxitu zen eta %30,9an kokatu. Beraz, gero eta gazte gutxiago dago eta horietatik gero eta gutxiago dira lan egiten dutenak.

Lan eskaintzaren ikuspegitik, partaidetza tasa aurreko urteko maila berean kokatu zen, nahiz eta urteko azken zatian gorakada garrantzitsua gertatu zen eta tasa hori 16 urtetik gorako biztanleriaren %55,1era igo zen. Urteko bigarren erdian ezagutu zen gorakada hori emakumeen partaidetzaren eskutik iritsi zen. Hala ere, urteko batez bestean emakumeen parte hartzea lan merkatuan ez dela lehen bezain azkar igotzen hauteman da. Adinen arabera, gazteak lan merkatutik gero eta aldenduago bizi dira eta ikasteko urteak luzatzen dituzte. Horren ondorioz, 16 eta 24 urte bitarteko gazteetatik heren bat baino gutxiago prest zegoen lan egiteko 2007. urtean. Handik gorako adin tarteetan, 2006. urtearekiko aldeak nahiko txikiak izan ziren, baina bietan partaidetza tasa zertxobait igo zen.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

17. TAULA

Ehunekoak

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
Partaidetza tasa guztira	54,6	54,6	55,2	54,6	54,0	54,9	55,1
- Gizonak	64,4	65,0	65,0	64,8	64,6	65,5	64,9
- Emakumeak	45,2	44,9	45,9	44,9	44,0	44,8	45,8
- 16 urtetik 24ra	34,9	33,5	34,4	32,6	32,3	35,1	33,9
- 25 urtetik 44ra	85,4	85,9	86,1	85,7	85,4	86,1	86,4
- 45 urte eta gehiago	36,6	36,7	37,3	36,6	36,0	36,8	37,3
Enplegu tasa guztira	52,3	52,9	53,3	52,7	52,2	53,2	53,4
- Gizonak	62,0	63,0	63,1	62,7	62,4	63,8	63,1
- Emakumeak	43,2	43,3	44,1	43,3	42,5	43,2	44,2
- 16 urtetik 24ra	32,1	30,9	31,8	29,6	30,0	32,6	31,5
- 25 urtetik 44ra	81,3	82,8	82,9	82,6	81,9	83,3	83,2
- 45 urte eta gehiago	35,8	36,0	36,5	35,8	35,4	36,0	36,7
Langabezia tasa guztira	4,1	3,3	3,4	3,4	3,4	3,1	3,1
- Gizonak	3,7	3,0	3,0	3,3	3,4	2,7	2,8
- Emakumeak	4,5	3,6	3,9	3,7	3,4	3,6	3,6
- 16 urtetik 24ra	8,1	7,6	7,6	9,2	7,0	7,2	7,1
- 25 urtetik 44ra	4,7	3,7	3,7	3,6	4,1	3,3	3,7
- 45 urte eta gehiago	2,2	1,8	2,2	2,1	1,8	2,0	1,5

Iturria: BJA (Eustat).

Aurreratu izan denez, langabeziaren bilakaerak EAEko ekonomiak 2007. urtean izan zuen une gozoa baieztatzen du. Izan ere, langabezia tasak maila frikzionalari eutsi zion. Eustaten estimazioaren arabera, langabezia kolektibo zehatz batzuetara mugatzen da, hala nola gazteen taldera. Hala ere, gazteen langabezia tasa (%7,6) ez da gaur egun bereziki altua eta, edozein modutan, Europar Batasunean batez beste jaso den zenbakitik (%15,4) oso azpitik dago. Beste aldetik, sexuen arteko aldeak hutsalak dira, zeren eta emakumeak ere enplegu beteko egoeran baitaude, nahiz eta, dagoeneko aipatua izan denez, emakumeen partaidetza tasa apal samarra izateak balioa kentzen dion emaitza on horri. Langabeziaren beste adierazle batzuek, hala nola enplegurako sistema publikoarenak, 2007. urterako Eustatek estimatu duen langabeziaren beherakada baieztatzen dute. Hala ere, 2008ko hasieran langabeziak gora egin du, lehenengo aldiz zenbait urtetan. Norabide aldaketa honek lotura handiagoa du enplegu eskatzaile berrien ugaritzearekin lanpostuen balizko galera batekin baino.

LAN MERKATUAREN ALDAGAI NAGUSIAK

18. TAULA

Mila lagunekoak eta urte arteko tasak


	Mila pertsona		Urteko tasa	2007			
	2006	2007		I	II	III	IV
Parte hartzaileak	994,7	997,4	0,3	0,3	0,3	0,5	0,0
- Gizonak	571,2	575,8	0,8	0,8	1,7	0,9	-0,1
- Emakumeak	423,5	421,5	-0,5	-0,3	-1,6	-0,1	0,1
Landunak	954,2	964,8	1,1	2,1	1,1	1,1	0,3
- Gizonak	549,9	558,4	1,5	2,4	2,2	1,5	0,1
- Emakumeak	404,3	406,5	0,6	1,7	-0,5	0,5	0,5
Langabeak	40,5	32,6	-19,7	-32,3	-17,7	-14,9	-8,5
- Gizonak	21,3	17,5	-17,9	-30,7	-10,9	-16,7	-8,0
- Emakumeak	19,2	15,1	-21,6	-34,2	-25,7	-13,1	-8,3
Langabezia tasa	4,1	3,3	---	3,4	3,4	3,1	3,1

Iturria: BJA (Eustat).


Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

11. irudia

Euskadi



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

BJA inkestaren analitik ondorioztatzen den datu positiboenetako bat da aldi baterako kontratuen bilakaerarena. Izan ere, aldi baterako kontratua zuten soldatapekoen ehunekoa emeki-emeki gutxitu zen 2007. urtean zehar, urteko batez bestean %21,0an kokatu arte eta laugarren hiruhilekoan %20,2ra jaitsi arte. Balio horiek azken urteetakoena baino txikiagoak dira, baina oraindik europar mailaren gainetik daude. Hobekuntza azken urtean enpleguaren osaeran gauzatu den aldakuntza positiboaren ondorioa da, aldi baterako lanpostuen kopurua murriztu delako (%-15,9) eta kontratu mugagabea dutenena goratu delako (%8,0). Datu hauek neurri batean bakarrik datoz bat BAI inkestak estimatu dituenekin, azken estatistika honek aldibaterakotasunaz ematen duen bilakaera horren baikorra ez delako. Zehazkiago adierazita, hamarren gutxi batzuk baino ez da jaitsi tasa hori (%28,1) eta igoera txikia estimatu du urteko bigarren seihilabeterako, %28,4ra iritsi arte.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

19. TAULA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2006	2007	2003	2004	2005	2006	2007
Guztira	803.596	836.459	5,2	6,4	1,9	3,1	4,1
Lanaldi osoko mugagabeak	22.671	29.765	-5,4	-1,0	3,6	9,4	31,3
Obra edo zerbitzukoak	192.848	194.144	1,6	4,2	-3,6	-0,1	0,7
Abagunekoak	230.238	241.969	5,3	5,9	0,6	3,2	5,1
Lanaldi laburrekoak	243.021	251.071	6,9	9,5	8,4	2,9	3,3
Prestakuntzakoak (*)	9.303	8.916	-13,2	6,4	-3,9	0,7	-4,2
Gainontzekoak	105.515	110.594	14,8	7,1	2,2	8,8	4,8

(*) Prestakuntzako kontratuen artean, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartu dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, INEMen datuetan oinarrituta.

INEMek kontratu berriei buruz argitaratu dituen datuek enpleguen egonkortasunerako joera hori neurri batean egiaztatzen dute, kontratu mugagabeen kopurua oso bizi areagotu zelako. Hain zuzen ere, kontratu horiek urtean zehar %31,4 hazi ziren, aldi baterako kontratuen kopurua %2,9 bakarrik gehitu zen bitartean. Hala eta guztiz ere, kontratu mugagabeen pisua kontratu guztien egiturari oraindik oso txikia da eta %5,3 bakarrik ordezkatzeko du. Dena dela, azken urtean bere pisua puntu bat eta hamarren bat igo da aurreko urteko ehunekoaren aldean, orduan %4,2 baitzen.

KONTRATU MUGAGABEEN BILAKAERA

20. TAULA

	2005		2006		2007	
Ohiko mugagabeak	11.446	1,47	12.906	1,61	21.177	2,53
Mugagabe berriak	9.015	1,16	9.472	1,18	8.301	0,99
Lanaldi osoko beste mugagabeak	254	0,03	293	0,04	287	0,03
Lanaldi osoko mugagabe guztiak	20.715	2,66	22.671	2,82	29.765	3,56
Lanaldi laburreko mugagabeak	9.163	1,18	8.845	1,36	14.373	1,72
Mugagabeak guztira	29.878	3,83	31.516	4,18	44.138	5,28
Kontratu berriak guztira	779.319	100,0	803.596	100,0	836.459	100,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, INEMen datuetan oinarrituta.

Prezioak, kostuak eta soldatak


Prezioen bilakaerari dagokionez, urte hasieran aldakuntza tasa apal samarra zen (%2,4) eta egonkor mantendu, gorabehera txiki batzuekin, abuztu arte. Aldi horretan guztian energiaren osagaiak aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen eta elikagai landuen tasak %3 gutxigatik gaitzitzen zuen. Hala ere, irailetik aurrera kontsumoko salneurrien bilakaera neurritsu hori lehengaien prezioen portaerak baldintzatu zuen. Izan ere, lehengaiak garestitze garrantzitsua izan zuten nazioarteko merkatuetan. Hain zuzen ere, petrolioaren upelaren salneurria urtarrean 54 dolar baino zertxobait gutxiago izatetik abenduan 91 dolar baino gehiago izatera igaro zen. Gorakada garrantzitsu hori euroak dolarren aldean lortu duen sendotasunak neurri batean leundu zuen. Beraz, lau hilabete nahiko izan ziren inflazioa abuztuko %2,3tik abenduak %4,2ra igotzeko.

2007. urtean zehar nabarmen garestitu ziren beste lehengai batzuk elikagaienak izan ziren. Lehengai horien prezio altuagoak berehala igaro ziren oinarriko elikagai batzuetara eta ogia, esnea eta arrautzak, beste batzuen artean, asko garestitu ziren. Zerealen garestitzearen jatorria produktu horien munduko eskaintzak gero eta handiagoa den eskaria asetzeko orduan aurkitzen dituen zailtasunetan dago. Eskariaren igoera garapen bidean dauden herrialdeetako elikaduraren hobekuntzak eta erregai fosilak ordezkatzeko zerealetan oinarritzen diren erregai berriak piztu duten interesak eragin dute. Egon badaude, aurrekoek gain, arrazoi iragankorrei lotutako beste arrazoi batzuk ere, hala nola uzta txarrak bildu izana, prezioak gararaziz, baina igoeraren zati handi bat aipatu ditugun egiturazko faktoreen ondorioa da. Zehazkiago adierazita, landutako elikagaiak %7,4 garestitu ziren EAEn azken hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilabeteko tasa baino lau puntu eta bi hamarren gehiago, azken hilabeteetan gorakada handiak jaso eta gero.


KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

12. irudia

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Landutako elikagaiekin batera energiako ekoizkinen bilakaera ere azpimarratu behar da, bi atal horien ekarpena kontsumoko prezioen indizearen igoera osoaren erdia baino gehiago izan baitzen. Izan ere, petrolioak errekorrak gaitzen jarraitu zuen, martxoko lehen egunetan upelaren balioa 100 dolarretatik zertxobait gorago kokatu zen, tentsio geopolitikoen ondorioz, bereziki turkiar armada Iraken sartu zelako, eta dolarraren ahultasunak finantza merkatuetan eragin duen espekulazioarengatik. Horri gehitu behar zaizkio AEBak atzeraldian sartuko ote diren piztu duen beldurra eta lurralde petrolio esportatzaileen erakundeak (LPEE) petrolio gordin gehiago ekoizteari eman dion ukoa. Aurreko guztiaren ondorioz, energiako ondasunak %9,0 garestitu ziren azken laurdenean, urte hasieran aldakuntza tasa negatiboa izan zen bitartean.

Eurogunearikiko inflazio tarteak ehuneko puntua gaitzen zuen urte amaieran, aipatuak izan diren lehengaien garestitzeak EAEn eragin handiagoa izan zuelako. Energiako ekoizkinei dagokienez, zerga gutxiago ezartzen zaizkienez, oinarritzko salneurriaren edozein aldakuntzak eragin handiagoak ekartzen ditu EAEn. Aurrekoaz gain, EAEko ekonomiak mendekotasun handiagoa du energia eta elikagaiekiko eta nazioarteko merkatuetan gertatzen diren prezio mugimenduek eragin handiagoa dute.

Talde berezien bilakaera zehazkiago aztertuta agerian gelditzen da energiako ekoizkinen (%12,3) eta landutako elikagaiek (%7,7) ez ezik, beste talde batzuek ere gehikuntza tasa

garrantzitsuak izan zituztela azken hamabi hilabeteetan. Esate baterako, elikagai freskoak %6,4 garestiagoak ziren otsailean eta zerbitzuetako prezioek ez dute inolako zantzurik erakusten beren salneurrien igoerak gutxitzeko eta %3,8ko tasaren inguruan mantentzen dira. Beste muturrean, industriako produktuak ez dira ia ezer garestitu. Beraz, EAEko ekonomian bi abiadurako inflazioa dago, arlo bakoitzak kanpoko ekoizleekin lehiatu behar duen ala ez bereizten dituen.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

21. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2006	2007	2007			Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazioa guztira (%100)	3,4	2,8	2,5	4,0	4,4	4,4
Azpiko inflazioa (%82,9)	2,9	2,8	2,6	3,3	3,3	2,7
KPI Landutako elikagaiak (%15,6)	3,6	4,0	3,2	7,4	7,7	1,2
KPI Industriako ondasunak (%29,6)	1,4	0,7	0,6	0,5	0,5	0,1
KPI Zerbitzuak (%37,7)	3,7	3,9	3,9	3,8	3,7	1,4
Hondarreko inflazioa (%17,1)	6,1	3,0	1,7	7,2	9,4	1,7
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,4)	4,3	4,2	3,6	5,2	6,4	0,5
KPI Energia (%9,7)	7,9	1,9	-0,1	9,0	12,3	1,2

Iturria: INE.

Azpiko inflazioari dagokionez, 2007. urtean eta batez beste indize orokorrarena bezalako urte arteko aldakuntza tasa (%2,8) jaso zuen arren, azken hiruhilekoan tarte bat zabaldu zen bi adierazle horien artean, jadanik aipatuak izan diren energia eta elikagai freskoen garestitzearen ondorioz. Landutako elikagaiak ere nabarmen garestiago saltzen ziren eta atal honek inflazioaren gune egonkorrean, hots, azpiko inflazioan, parte hartzen duenez, azken hau ere maila altu samarretara igo da. Hain zuzen ere, azpiko inflazioak azken bost urteko mailarik gorenean dago.

Ekoizkinen atalka, oso deigarria da aisialdia eta kultura delako taldean biltzen diren produktuen bilakaera, 2007ko otsaileko prezioak aurreko urteko hilabete berekoak baino apalagoak zirelako. Orobat, igoera txikiak jaso zituzten jantziak eta oinetakoak delako taldeak eta komunikazioenak ere, bi atal horietako gehikuntza urte osoan ez baitzen %1era iritsi. Beste muturrean, garestitze handienak elikagaietan eta garraioan gertatu ziren, dagoeneko aipatuak izan diren arrazoiengatik, baina baita irakaskuntzan, ostalaritzan eta etxebizitzan ere, talde horietan guztietan hazkunde tasak %4 gaitzen baitzuen. Tasa horretatik hurbil kokatu da edari alkoholduak eta tabakoa atalaren aldakuntza tasa.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

22. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2006	2007	2007			2008
			II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	3,4	2,8	2,5	2,5	4,0	4,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	3,8	2,9	3,0	6,7	7,6
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,0	6,6	5,6	6,0	5,9	3,9
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,4	1,4	1,4	1,4	0,8
Etxebizitza	6,3	3,6	3,0	3,3	4,5	4,2
Etxeko hornidura	3,0	3,5	4,0	3,6	3,1	3,8
Medikuntza	1,9	-0,5	-0,8	-0,9	-1,1	-1,2
Garraioa	4,3	2,3	1,1	1,4	6,2	7,1
Komunikazioak	-1,3	0,2	0,3	0,5	0,7	0,9
Aisia eta kultura	0,4	-0,9	-0,7	-1,4	-1,1	-0,6
Irakaskuntza	4,5	4,5	4,5	4,6	4,4	4,6
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	3,9	4,6	4,9	4,7	4,4	4,4
Besteak	3,0	3,2	3,6	3,1	2,9	3,2

Iturria: INE.

Industriako prezioen estatistikak (IPRI) kontsumoko prezioena bezalako bilakaera izan zuen, zeren eta 2007an, urteko batez bestean, aurreko urtekoak baino balio txikiagoak jaso zituelako (%4,0, aurreko urteko %5,0aren aldean), baina gero eta tasa handiagoak izan zituen urte amaieran, 2008ko urtarrilean aldakuntza tasa %4,5era iritsi arte. Energiako prezioak izan ziren bilakaera gorabeheratsuena nozitu zutenak, urteko lehen erdian aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten bitartean, argitaratu diren azken datuetan urte arteko tasak %10 gainditu zuen. Industriako prezioetan ere nazioarteko merkatuen bilakaerak EAEko salneurrien norabidea baldintzatu du.


Energiaren bilakaera hedakorrenen beste muturrean bitarteko ondasunen prezioak kokatzen dira, beren igoerak motelduz joan baitziren aurtengo urtarrilean %1,6an kokatu arte. Gainontzeko lehengaiek ez bezala, industria metalikoen lehengaiek beren salneurriak jaitsi zituzten 2007ko bigarren erdian, aurreko urteetako igoera garrantzitsuen ondoren. Lehengaien merkatze hori bitarteko ondasunen prezioetara igaro da. Kontsumo iraunkorreko ondasunek ere bilakaera neurritsua erakutsi zuten, baina kontsumo iragankorreko zein ekipamendurako ondasunek gorakada nabarmena izan zuten beren prezioetan.

IPRIren bilakaera


13 irudia

Urte arteko aldakuntza tasak

Indize orokorra



Energia



Iturria : Eustat.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

23. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008
			I	III	IV	Urtarrila
Indize orokorra	5,0	4,0	4,4	3,3	4,2	4,5
Konsumoko ondasunak	2,9	4,0	3,6	4,2	4,8	3,4
- Kontsumo iraunkorrak	0,6	1,4	1,5	1,4	1,4	1,6
- Kontsumo iragankorrak	3,8	5,1	4,4	5,5	6,3	4,1
Ekipamendurako ondasunak	0,9	3,9	4,3	4,1	4,1	4,3
Bitarteko ondasunak	6,2	6,0	7,9	5,5	2,3	1,6
Energia	8,9	-1,4	-3,6	-4,5	9,0	14,0

Iturria: Eustat.

INE lan kostuei buruz egiten duen estatistikaren arabera, kostu horiek nabarmen igo ziren 2007. urtean, bereziki urteko bigarren erdian. Beste urte batez, soldata kostuak gainontzeko kostuak baino gutxiago areagotu ziren. Ekonomiaren jarduerak izan duten bilakaera aztertuta, azpimarratu behar da eraikuntzaren lan kostuek, bereziki azken hiruhilekoan jaso zuten garestitze handia. Beste muturrean, industriak bigarren hiruhilekotik aurrera bere igoerak moteldu zituen.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2006		2007		
			VI	I	II	III	IV
Kostu guztiak	2,3	4,7	2,8	4,3	4,4	5,1	4,9
- Soldata kostuak	2,2	4,8	3,3	4,9	4,5	4,9	4,8
- Bestelako kostuak	2,7	4,4	1,2	2,7	4,0	5,8	5,1
Kostu guztiak industrian	2,9	4,3	3,4	3,9	5,6	4,3	3,4
Kostu guztiak eraikuntzan	4,6	6,8	3,1	7,0	4,0	7,2	9,1
Kostu guztiak zerbitzuetan	2,2	4,7	3,1	4,2	4,0	5,4	5,1

Iturria: INE.

Azkenik, lan hitzarmenetan adostutako soldata igoerek beheranzko joera hartu zuten, aurreko urteetako gehikuntzaren ondoren. Hain zuzen ere, %4,2ko batez besteko igoera sinatu zen, 2006. urteko %4,9aren aldean. Moteltze hori lotuta dago inflazio tasak aurreko urtean izan zuen bilakaerarekin, hori baita oraindik negoziazio kolektiboan gehien erabiltzen den erreferentzia. Hain zuzen ere, 2005eko abenduan KPIren gehikuntza tasa %3,7 izan zen bitartean, 2006. urtekoa (2007ko negoziazioaren erreferentzia) %2,6 bakarrik igo zen. Hala ere, 2008. urteko negoziazio kolektiboak 2007ko abenduaren datua (%4,2) hartzen du erreferentziaz eta, horren ondorioz, aurten soldaten igoera handiagoa izango dela aurreikusten da.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

25. TAULA

	2003	2004	2005	2006	2007
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,4	4,0	4,5	4,9	4,2
- Urtean zehar sinatutakoak	4,9	3,9	4,3	5,0	4,1
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,5	4,0	4,6	5,0	4,2
- Enpresako hitzarmenak	3,9	3,8	4,1	4,1	4,2

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Itunpeko zergen diru bilketaren analisiak adierazten du 2007. urtean ere gehikuntza handia lortu zela, ekitaldian zehar ekonomiaren jarduerak izan zuen bizitasunaren isla. Zehazkiago adierazita, diru bilketa 13.772 milioi eurora iritsi zen, aurreko urtearekiko gehikuntza tasa %9,7an kokatu zelarik. Hazkunde tasa hori 2006. urtekoa baino puntu bat eta zazpi hamarren txikiagoa izan bazen ere, oso gehikuntza tasa handia da oraindik, urteko BPG nominalaren igoera (%7,4) nabarmen gainditzen duelako.

Portaera onena zuzeneko zergen bilakaerak erakutsi zuen berriro. Hain zuzen ere, PFEZ zergaren diru bilketa %13,6 areagotu zen, aurreko urteko %10,3aren aldean. Beraz, oro har zerga erreformak eta familien errenta gordinen moteltzeko joerak ez zuten eragin kaltegarririk izan zuzeneko zergetan. Emaizta positibo horri lagundu zion, zergaren atal nagusia diren lan errendimenduez gain, kapital higigarriaren, kapital higiezinaren eta ondare irabazien gaineko atxikipenen gorakadak, beste arrazoi batzuen artean, atxikipen tasa %15etik %18ra goratu zelako. Jakina, tasa igoera horrek sozietateen gaineko zergen ere eragina izan zuen. Izan ere, sozietateen gaineko zergak %20,2 areagotu zuen diru bilketa, azken urteetako hazkunderik handienetakoa delarik, 2005. urtean jasotakoarekin batera. Ekoizpen jardueraren sendotasuna eta enpresek lortu dituzten emaitza onak dira zerga horren bilakaera positiboa azaltzen duten gakoak.

Zergen beste atal handiak, zeharkako zergak izenaren azpian biltzen direnak, zuzeneko zergarenak baino emaitza askoz apalagoa lortu zuen. Multzo horretako zerga nagusiak, BEZ zergak, aurreko urtean baino %5,7 gehiago bildu zuen 2007. urtean, aurreko ekitaldietan izandako gehikuntza tasen aldean nolabaiteko ahultasuna erakutsiz. Motelaldi hori azaldu dezaketen arrazoiaren artean, aipatu behar dira kontsumo pribatuaren bultzada txikiagoa, etxebizitza berrien salmentak izan zuen jaitsiera eta urte osoan zehar egin ziren itzulketen gorakada handia.

Azkenik, zerga bereziek aurreko urtekoaren antzeko gehikuntza tasak jaso zituzten (%6,4 2007. urtean eta %6,2, berriz, 2006an). Aipatu behar da tabakoaren lanengatiko diru bilketak izan zuen hazkunde garrantzitsua, produktu horren garestitzeak eta berari ezarritako zerga handiagoak bultzatuta. Beste zerga berezi garrantzitsuenak, hidrokarburoen gainekoak, ia ez zuen ezer jaitsi bere hazkunde tasa (%4,3, aurreko urteko %4,9aren aldean), prezioen bilakaerak eragin txikia duela erregaien kontsumoan agerian utziz.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2007ko urtariletik abendura)

26. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2006	2007	Aurrekon. %	07/06 aldak. %
PFEZ	3.754.206	4.266.304	108,1	13,6
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.755.029	4.040.736	103,6	7,6
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	151.843	237.211	133,6	56,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	32.733	41.587	103,3	27,1
- Ondare irabazien atxikipenak	21.167	40.254	164,6	90,2
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	174.584	181.643	101,2	4,0
- Kuota diferentzial garbia	-381.149	-275.128	---	27,8
Sozietateen gaineko zerga	1.692.381	2.034.171	114,9	20,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	151.843	237.211	133,6	56,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	32.733	41.587	103,3	27,1
- Ondare irabazien atxikipenak	21.167	40.254	164,6	90,2
- Kuota diferentzial garbia	1.486.639	1.715.119	112,2	15,4
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	70.547	175.801	275,3	149,2
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	76.347	76.164	104,4	-0,2
Ondarearen gaineko zerga	127.069	154.297	114,0	21,4
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	5.720.551	6.706.737	112,0	17,2
BEZaren bertoko kudeaketa	3.464.922	3.661.087	103,8	5,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	367.946	372.128	101,6	1,1
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	136.604	134.867	92,8	-1,3
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	70.351	77.001	101,9	9,5
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.411.215	1.501.086	106,6	6,4
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	50.091	51.957	97,1	3,7
Aseguru sarien gaineko zerga	71.940	78.121	99,5	8,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	6.728.103	6.946.919	122,8	3,3
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	103.646	118.466	108,6	14,3
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	11.399.445	12.702.725	108,1	11,4
BEZaren doikuntza	1.208.903	1.176.342	98,4	-2,7
Zerga berezien doikuntza	-56.048	-106.944	---	-90,8
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.552.300	13.772.123	106,7	9,7

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa


Munduko ekonomiak 2007. urtean berriro hazkunde sendoa erakutsi zuen arren, finantza merkatuetan gero eta nabariagoa zen urduritasuna, AEBetako ahultasunak eta ekonomia horrek munduko besteak kutsatuko dituen beldurrak eraginda. Horretaz gain, subprime kredituekin lotuta dauden aktiboen balio galeraren ondoren, banku sistemaren benetako egoerak kezka areagotu du.

2005. urtean hasi ziren moneta doikuntza ugariak jarraipena izan zuen 2007. urtean zehar, finantza zurrunbiloek banku zentralen interes tasen gaineko politika baldintzatzen jarraitu zutelako. Zehazkiago adierazita, Erreserba Federalak, merkatuak ustekabeen harrapatzeko asmoz eta horrela ekonomiaren egoera egonkortzeko helburuarekin, urtarrilean egin zuen ezohiko bilera batean 0,75 puntu jaitsi zituen erreferentziako interes tasak %3,5ean kokatuta. Tamaina horretako jaitsierarik ez zen inoiz gertatu aurreko hogeita hiru urteetan. Zortzi egun beranduago beste beherakada bat erabaki zuen, ordukoa puntu erdi batekoa, eta interes tasa %3,0an utzi zuen, 2005eko maiatzetik egon den apalena baita.

Erreserba Federalak lehentasuna eman zion hazkundera oztopatu dezaketen arriskuei aurre egiteari, inflazioaren presioak bigarren mailan utzita. Hori dela eta, diruaren salneurria 2007ko abuztutik 2,25 puntu beheratu du AEBetako banku zentralak. Horri gehitu behar zaio bertako Gobernuak 150.000 milioi dolarreko neurrien sorta bat, zergen alorretakoa, prestatu duela. Bi erakunde horien ekintzen asmoa kontsumo pribatua sustatzea eta higiezin merkatuaren narriadura galgatzea da.

Oso bestelakoa izan da Europako Banku Zentralaren ikuspegia. Bi urte luzez moneta politika gogortzen egon ondoren eta Erreserba Federalaren jaitsierak handiak izan arren, otsaileko bilera aho batez erabaki zuen diruaren prezioa bere horretan uztea, hots, %4,0an, zortzigarren hilabetez jarraian. Europako ekonomiak oraindik erakusten zuen bilakaera sendoa kontuan hartuta eta nazioarteko finantza krisiak Eurogunearen ekonomian eragin txikiagoa izango zuela iritzita, Europako Banku Zentralak inflazioa kontrolatuta edukitzeari eman zion lehentasuna, enplegua sortzeko ezinbesteko baldintza dela uste baitu.

Ingalaterrako Bankuak ere interes tasak gutxitzea erabaki zuen. Puntu laurden bat jaitsi zuen interes tasa eta %5,25ean utzi zuen diruaren prezio ofiziala, oraindik EBZk ezarri duen %4aren nahiko gainetik dagoelarik. Bi hilabetera iristen ez den denbora labur batean bigarren aldiz jaitsi du interes tasa Ingalaterrako Bankuak.



Iturria: Espainiako Bankua.


Japoniako Banku Zentralak ez du inolako mugimendurik egin 2007ko lehen hiruhilekotik. 2006ko uztailean hasi zuen moneta politika normalizatzeko prozesuak geldirik jarraitzen du finantza merkatuetako gaur egungo arazoengatik eta bertako herrialdeko ekonomia jardueraren sendotasun faltarengatik. Txinako Banku Zentrala, berriz, salbuespena da banku zentralen artean, interes tasak igotzeari eutsi diolako. Izan ere, herrialde horretan prezioak gehiegi igotzen ari dira eta kontrolatu beharra dago. Hain zuzen ere, urtarileko KPI indizea %7,1era igo zen, azken hamaika urteko tasarik gorena baita.

Dibisa merkatuetan, finantza merkatuetako ezegonkortasunak truke tasaren bilakaera ere baldintzatu zuen, baina baita AEBetako moteltzeak eta interes tasen bilakaerak ere. Azken hilabeteetan eragina izan duten hondoko arrazoiak ez dira aldatu. Euroa erreserba diru gisa gero eta onartuagoa izateak sendotasuna eman dio Europako txanponari dibisa nagusien artean. Izan ere, euroak inoizko baliorik gorena lortu zuen dolarrarekiko 2007ko laugarren hiruilekoan zehar, eta 2008ko lehen hilabeteetan joera hori are finkatuago gelditu zen. Otsailen zehar billete berdeak etengabeko balio galera nozitu ondoren, otsailaren 26an, AEBetako etxebizitzaren salneurria jaitsi egin zela argitaratu zen eta Erreserba Federalak interes tasak gehiago jaitsi zitzakeela iragarri zuen. Bi albiste horiek euroa 1,5009 dolarretara eramane zuten, inoizko baliorik gorenera. Aldi berean, Brent motako upelaren salneurriak ere beste errekor bat markatu zuen, etorkizuneko merkatuetan 100,03 dolarretan kotizatu baitzen.


Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

15. irudia


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria : Espainiako Bankua.

2007ko bigarren seihilekoan, euroak balio handia irabazi zuen yenaren aldean eta euro bakoitzeko 166,76 yen ordaintzera iritsi zen, beharbada arrisku gutxiagoko testuinguru batengatik eta Japoniako ekonomiarentzat egin diren aurreikuspenak beherantz berrikusi direlako. Geroztik, urtarrilean, carry trade delakoen zuzenketaren ondorioz, yenak galdutako balioaren zati bat berreskuratu zuen.

Euroaren joera libera esterlinaren eta suitzar frankoaren aldean oso antzekoa izan zen. Bi dibisa horiek balioa galdu zuten euroaren aldean hilabetez hilabete 2007. urtean zehar, emeki-emeki baina etengabe. Euroaren kotizazioak libera esterlinaren eta Suitzako frankoaren aldean balio altuena lortu zuen 1997ko erdialdetik, laugarren hiruhilekoan 0,709 liberak euroko eta 1,659 suitzar franko euroko ordaindu baitziren. Hala ere, 2008ko hastapenean egoera aldatu zen. Bi dibisa horiek antzeko mailetan kokatu arren, libera esterlinak balioa galtzen jarraitu zuen eta Suitzako frankoak nolabaiteko susperraldia izan zuen.

Datu makroekonomikoei, finantza arloko albisteek eta banku zentralen moneta politikaz hartutako neurriak burtsen bilakaera ere nabarmen baldintzatu zuten. Garatutako herrialdeen burtsak igoera txikiak lortu zituzten 2007. urtean, %5aren eta %7aren artekoak. Salbuespena Alemaniako burtsa izan zen, %20aren inguruko aldakuntza tasa metatua jaso zuelako. Hala eta guztiz ere, AEBetako Erreserba Federalak onartutako interes tasen beherakada garrantzitsuak eta herrialde hartako kreditu aseguratuko enpresa ezagun batzuek kreditu kalifikazioan izan zuten okertzeak urtarrilean burtsa guztiak jaitsarazi zituzten. Otsailaren erdialdean, burtsak ez ziren gai izan oraindik beherakada hori gainditzeko eta suspertu gabe jarraitzen zuten.

Txina erraldoiaren burtsa merkatuaren iraultza gainontzeko burtsetatik aldendu zen. Bertako adierazle nagusiak, CSI 300 izenekoak, %160 baino gehiago irabazi zuen aurreko urtean, mundu osoan 2007. urtean gehien hazi zen indizea izan zelarik. Burtsaren portaera positibo horrek bide eman zion Txinari munduko bigarren potentzia kapitalizazioan izateko, 3,52 bilioi euroekin. Txinaren aurretik dagoen herrialde bakarra AEBak dira, bertako burtsan kotizatzen diren enpresen balioa 12,5 bilioi eurora iristen baita. 2007. urtean, Asiako potentzia nagusiak aurrea hartu zien Japoniari, Ingalaterrari, Frantziari eta Alemaniari.


Hipoteka kredituetako interes tasak zehazteko Espainian gehien erabiltzen den erreferentzia, hots, euriborra, %4,793an kokatu zen urte amaieran, bi hilabeteko jaitsierari bukaera emanez eta 2000ko abendutik inoiz jaso duen mailarik altuena jasoz. Urte amaieran, interes tasen mugimenduek euriborraren beherakada iragartzen bazuten ere, adierazle horrek gora egin zuen. Interes tasen etorkizuneko bilakaera aurreratzen duen adierazle bat izateaz gain,

euriborra bankuen arteko maileguen prezioa kalkulatzeko erreferentzia bat ere bada. Horregatik, 2007ko amaieran, bankuek likidezia handiko urteko balantzeak erakutsi nahi izan zutenean, diruaren eskaria biziki areagotu zen eta berarekin batera bankuek elkarri emateko prezioa ere. Geroztik, urtarrilean, bankuen arteko eskaintzaren europar tasak interes tasen bilakaerarekin adosago zegoen joera bat erakutsi zuen eta beherantz egin zuen, urtarrilaren amaieran %4,498an kokatuz, 2007ko maiatzetik izandako apalena baita.


Interes tasen bilakaera %

16. irudia

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.

Kredituen eta gordailuen bilakaerak ere ekonomiaren panorama orokorrean hauteman zen ziurgabetasuna nabaritu zuen. Interes tasen gehikuntzak eragina izan zuen arlo pribatuari emandako finantzazioan, urtea aurrera joan ahala moteldu baitzen, %13,4an kokatu arte. Hazkunde tasa hori oraindik sendoa da eta barne eskariaren sendotasunak islatzen du. Hala ere, 2005eko hastapenetatik inoiz lortu den tasarik txikiena da. Moteltzeko joera horren atzean, bereziki, etxebizitzak erosteko maileguek izan zuten erritmo apalagoa dago, urteko bigarren seihilekoan, aurreko urteko epe beraren aldean aldakuntza tasa negatiboak aurkeztu baitzituzten. Datozen hilabeteetan ere moteltzeko joerak bere horretan jarraituko duela aurreikusten da eta higiezinaren eskariarena bezalako bilakaera izango duela, likidezia krisia dela eta finantzaziorako eskaria gutxiagoko testuinguru batean.


Azkenik, bankuen gordailuek bilakaera hobia izan zuten. Bankuetako kontuek lortu zituzten ordainketa handiagoek arlo pribatuaren gordailuak areagotu zituzten, nahiz eta urte amaierako

hilabeteetan joera hori leundu zen. Hala eta guztiz ere, 2007. urteko emaitza eta aurreko urtekoa hamarkada osoko daturik onenak izan ziren.


Kreditu eta gordailuen bilakaera %

17. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

Ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten erakunde nagusiek adierazi dutena ikusita, munduko ekonomiak nabarmen murriztuko du bere hazkunde erritmoa 2008. urtean, garatutako herrialdeek eta garapen bidean dauden ekonomiek nozituko duten motelaldiaren ondorioz. Estatubatuar ekonomiaren bizitasun txikiagoa eta garatutako beste ekonomia batzuetara igarotzea dira munduko ekonomiaren hazkunderako aurreikusten den hazkunde apalagoaren arrazoi nagusiak. Azken urteetan gertatu den bezala, Asiako ekonomiek ekarpen handia egingo diote munduko hazkundeari 2008. urtean, baina beraien gehikuntza tasa nabarmen txikiagoa izango da. Ekialde Hurbileko herrialdeek, berriz, moteltzeko joera ez dute asko nabarrituko, petrolioaren gaur eguneko salneurriak mesede egiten dielako beren ekonomiei. Oro har, garapen bidean dauden ekonomiek gutxiago pairatuko dituzte finantza krisiaren ondorioak, herrialde horietako finantza sistemak oso garatuta ez egotea eta zorpetze maila apala izatea, oraingoz, lagungarriak izan zaizkielako. Beraz, herrialde horiek izango dira 2008ko hazkundearen zutabe nagusia.

Azken urteetan, AEBetako ekonomiak hedapen garrantzitsua lortu du eta enplegua sortzeko ahalmen handia erakutsi, baina egoera hori mehatxupean gelditu zen 2007. urte amaieran. Estatubatuar ekonomiaz eragile guztiek egiten duten galdera hauxe da: AEBetako ekonomia atzeraldian dago? Krisia dagoela baieztatu ahal izateko erabiltzen den irizpidea ekonomia jardueraren jaitsiera nabarmena egotea da, ekonomia osora zabaltzen dena eta hilabete gutxi batzuk baino gehiago irauten duena. Gelditasun hori barne produktu gordinen, termino errealetan neurtuta, diru sarreretan, enpleguan, industria ekoizpenean eta handizkako zein txikizkako salmentetan ikusten da. Bada, estatubatuar ekonomiaren koiunturaz argitaratu diren eta oraindik behin-behinekoak diren azken adierazleak ikusita, ezin da baieztatu AEBetako ekonomia atzeraldian dagoenik.

Gaur egun, AEBetako ekonomian bi joera kontrajarri hautematen dira. Alde batetik, eraikuntzak eta egoitzen arloarekin zerikusia duten adar guztiek moteltzeko joera harrigarria erakusten dute. Beste aldetik, ekonomiaren gainontzeko atalak bikain ari dira hazten. Azken multzo honek pisu handiagoa du ekonomian higiezinaren eremuak baino. Hala ere, bi joera horien arteko aldea murriztu daitekeela pentsatzen da. Izan ere, 2008. urterako aurreikuspenetan oso garrantzitsuak izango dira eraikuntzaren narriadura eta beraren motelaldia ekonomiaren gainontzeko adarretara igarotzeko aukera. Ekonomiaren etorkizuneko bilakaera baldintzatuko duen beste aldagai bat familien kontsumoa izango da. Etxebizitzen

merkatzeak eta hortik eratortzen den aberastasun efektua gutxitzeak kaltetu dezakete familien kontsumoa.

Txinako ekonomiak lortuko duen hazkunde tasak analisigileak harritzen jarraituko du. Hala eta guztiz ere, nazioarteko hainbat erakundek bilakaera motelagoa iragartzen dute 2008. urterako. Nazioarteko testuinguru ekonomikoa gutxiago haziko denez, pentsatzekoa da txinatar esportazioak gainontzeko herrialdeetara ez direla horrenbeste areagotuko. Txinako Banku Zentraleko agintariek interes tasak igotzeko politika bati ekin zioten iaz kapitala atzerrira joan zedin eragozteko eta barneko prezioen bilakaera kontrolatzeko. Beijingen egingo diren Olinpiar Jokoen antolakuntzaz gain, Txinako oraingo Gobernuak beste erronka bat dauka: landa inguruetako eta barneko probintzietako garapena sustatu, diru sarreretan areagotu den alde handia murriztuz. Beharbada, helburu garrantzitsuena gero eta gehiago hazten ari den inflazioa kontrolatzea da, gizartearen ezinegona piztu baitu. Bertako txanponaren balioa igoko balitz helburu hori lortuko zen eta, bide batez, inportazioak merkeagoak izango lirateke. Horren ondorioz, barne eskaria areagotuko zen eta herrialdea lagunduko zuen hazten esportazioen menpean egon gabe.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Inflazio tasa		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Munduko Ekonomia	3,7	3,0	3,3	3,1	3,2	2,6
AEB	2,2	1,6	2,6	2,9	2,9	2,0
Kanada	2,6	1,8	2,5	2,2	1,5	2,0
Japonia	1,9	1,4	1,9	0,0	0,5	0,5
Eurogunea	2,6	1,6	1,9	2,1	2,5	2,0
Europar Batasuna	2,8	2,0	2,1	2,2	2,6	2,1
Alemania	2,5	1,7	1,9	2,2	2,1	1,7
Espainia	3,8	2,5	2,2	2,8	3,5	2,6
Frantzia	1,9	1,6	1,9	1,5	2,2	1,8
Herbehereak	3,1	2,2	2,2	1,6	2,3	2,5
Italia	1,7	1,0	1,4	1,8	2,5	2,0
Erresuma Batua	3,1	1,7	2,0	2,3	2,4	2,0
Asia eta Pazifikoa	5,6	4,9	5,0	2,4	2,8	2,3
Ekialdeko Europa	6,7	6,0	5,8	8,4	8,0	6,3
Amerika Latina	5,2	4,4	4,3	6,1	6,2	5,9

Iturria: Consesus Forecast (2008ko otsaila).


Indiako barne produktu gordina 2008. urtean aurrekoan baino zertxobait gutxiago haziko dela aurreikusten da. Informazioaren teknologiarekin zerikusia duten arloek hazkunde sendoa izan dezakete 2008. urtean. Hala ere, sektoreak aurre egin behar die faktore batzuei, hala nola errupiak dolarren aldean irabazi duen balioari, Ekialdeko Europako herrialdeetatik eta munduko beste tokietatik gaur egun egiten den lehia gogorrari eta AEBetan ondasun horietan gutxiago gastatzeko aukerari. Moneta politika murriztaileak ere bizitasuna kenduko dio ekonomiaren hazkundeari 2008. urtean. Landa eremuetako bizi baldintzak hobetzeaz gain, neurriak hartu beharko dituzte atzerriko enpresak bertan errazago ezar daitezen eta azpiegituren behar gorria beteko duten politikak hartzen.

Munduko BPGren bilakaera


18. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina



Iturria : Consensus Forecast (2008ko otsaila) eta The Economist. (Txina).

Japoniako ekonomiaren hazkundera puntu erdi baten inguruan murriztuko da 2008. urtean. Yenak dolarraren eta euroaren aldean, ematen duenez, lortuko duen sendotasunak bertako ekonomiaren bultzagile nagusia, hots, manufakturen esportazioa, kaltetuko du. Beste aldetik, Txina bezala, Japonia ere zertxobait bereizi da estatubatuar ekonomiaren bilakaeratik eta esportazioak bereziki Europara eta Txinara bideratzen ditu. Horiek horrela, AEBetako moteltzeak ez du horren eragin handirik izango Japonian. Kapitaleko inbertsioan eta etxebizitzaren inbertsio pribatuan ere tasa apalagoak jaso daitezkeela aurreikusten da, kostuak nabarmen igo daitezkeelako. 2008. urtean legebiltzarrerako hauteskundeak egiteko aukerak Japoniako Gobernuak behartuko du ekonomia hazkundera bultzatuko duen politika baten edo defizit publikoa murriztuko duen politika baten artean hautatzera.

Errusiak hazkunde garrantzitsuak lortu ditu azken urteetan, energia ekoizkinen salneurri altuari esker. Ekonomiaren bilakaera horretaz baliatuta, herrialdeak egiturazko aldaketa asko egin ditu eta familien kontsumoa suspertu da. Halaber, atzerritar inbertitzaileek interes gehiago daukate orain herrialde horretan negozioak jartzeko. Hala eta guztiz ere, errusiar ekonomiak etorkizunean izango duen bilakaera ezin da erraz aurreikusi. Petrolioaren salneurriak, errubloaren sendotasunak eta inflazioaren presioek ekialdeko ekonomia hori mehatxatzen dute.

Higiezinaren prezio garestiek arriskuan jar dezakete Europako zenbait herrialderen ekonomia, hala nola Britainia Handiarena, Irlandarena eta Espainiarena. Herrialde horietako higiezinaren merkatuan sortu den burbuilak familien kontsumoa eta eraikuntzako enplegua sustatu ditu. Burbuila bat-batean hustuko balitz ekonomiaren hazkundera arazo larriak egon zitezkeen. Beste aldetik, 2007. urtean AEBetan gertatu zen finantza krisiak Europan ere izan dezake eragin kaltegarria. Europar erakunde batzuek diru galera garrantzitsuak pairatu dituzte eta beste batzuk egoera berean egon daitezke laster. Berankortasun indizearen igoerak eta etxebizitzaren prezioaren jaitsiera bortitzak finantza galerak eragingo lituzke eta kreditu berriak lortzea zailduko luke.

Euroaren sendotasunak eragin kaltegarria izan dezake europar esportazioen bilakaeran. Manufakturetako hainbat ekoizle behartuta egon dira ekoizpen kostuak murriztera, truke tasaren eragina konpentsatu ahal izateko. Beste aldetik, Europako Banku Zentralak interes tasak %4,0an utzi ditu eta epe laburrean maila horri eutsiko diola aurreikusten da, Europako prezioen goranzko joerari aurre egiteko. Izan ere, Europako inflazioak alde handiz gaintzen du erakunde horrek ezarritako helburua.

Espainiako ekonomiak hazkunde tasa bizia lortuko du, baina FUNCASek osatzen duen adituen taldea bat dator moteltzeko joera garbi bat adierazteko unean. Hain zuzen ere, batez besteak 2008. urterako estimatu duen BPGren hazkunde tasa %2,7an dago kokatuta, hots, aurreko urteko mailan baino 1,1 puntu beherago. Beraz, hazkunde nabarmen apalagoko fase batean sartuko dela iradokitzen dute. Espainiako ekonomiak bizitasuna galduko badu ere, Euroguneko batez bestea baino gehiago haziko da berriro.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko martxoa-apirila)
28. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoan eta bestean	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	2,4	1,9	2,2	1,9	4,8	5,1	1,7	-0,4	-0,5	-1,1	5,2	1,4
BBVA	2,6	--	2,5	--	5,1	--	1,7	--	-0,3	--	4,7	--
Caixa Catalunya	2,6	2,1	2,4	2,1	5,0	4,9	2,8	1,2	1,2	-0,4	5,0	3,2
Caja Madrid	2,4	2,0	2,1	1,6	5,2	5,1	0,4	-0,5	-2,0	-2,5	2,9	1,3
CEPREDE-UAM	2,6	2,2	2,3	1,8	4,8	4,0	2,2	0,2	-1,2	-3,8	9,7	6,6
Merkataritza ganbarak	2,7	2,0	2,3	1,4	5,1	5,4	3,4	2,2	1,5	0,3	6,4	5,2
FUNCAS	2,6	1,6	2,2	1,9	5,2	4,0	1,6	-0,9	-1,2	-2,6	6,5	1,0
ICAE-UCM	2,7	2,0	2,5	2,0	5,0	4,2	2,4	1,0	0,8	-0,2	6,1	2,8
ICO	2,7	2,4	2,3	2,1	4,7	4,3	2,9	2,0	1,3	0,3	6,6	5,2
IEE	2,5	--	2,5	--	5,0	--	2,0	--	0,0	--	6,0	--
IFL-UC3M	2,5	2,3	2,2	2,4	4,8	4,2	2,9	2,8	0,7	0,8	6,3	6,2
Intermoney	2,4	--	2,0	--	4,9	--	1,2	--	-1,8	--	6,5	--
La Caixa	2,5	2,6	2,2	2,3	4,4	5,6	2,4	2,4	0,9	1,7	5,1	3,4
SCH	2,4	2,0	2,4	2,0	5,1	4,6	2,0	1,3	-0,7	-2,7	6,1	4,0
Batez bestea	2,5	2,1	2,3	1,9	4,9	4,7	2,1	1,0	-0,1	-0,9	5,9	3,7
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2007-12)	3,1	--	2,8	--	5,2	--	3,1	--	--	--	--	--
E. Batzord. (2008-02)	2,7	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
NDF (2007-10)	2,7	--	2,2	--	4,4	--	3,0	--	--	--	--	--
ELGE (2007-12)	2,5	--	2,7	--	4,1	--	1,2	--	--	--	--	--

Iturria: Funcas.

Aditu taldearen aurreikuspenek beheranzko berrikusketa txikia egin diete aurreko iritziei, nazioarteko ekonomian oraindik dauden ziurgabetasunak eta mesfidantzak eraginda.

Aurreikuspen horien oinarrian, gutxiago haziko den ingurunea eta finantza baldintza zorrotzagoak daude.

Familien kontsumoa neurri txikiagoan haziko dela aurreikusten da. Halaber, kapital eraketa gordinak bizitasuna galduko duela espero da, eraikuntzan zein ekipamendurako ondasunetan hazkundeak askoz ere txikiagoak izango direlarik. Osagai guztiak gutxiago haziko direnez, nazio eskariak ere moteltzeko joera garbia hartuko du. Beste aldetik, kanpo eskariak barne produktu gordinaren hazkundeari egiten dion ekarpen negatiboa murriztuko da. Izan ere, inportazioak eta esportazioak gutxiago haziko dira, baina azken hauek gutxiago nabaritutako dute apaltzea.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2007ko martxoa-apirila)

29. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BIA)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	2,5	1,8	4,6	4,0	4,6	3,3	3,5	2,5	1,2	0,9	9,0	9,5
BBVA	2,8	--	4,2	--	4,3	--	3,5	--	1,3	--	8,5	--
Caixa Catalunya	3,3	2,5	3,9	3,4	4,3	3,2	3,6	2,6	1,8	1,5	8,7	9,0
Caja Madrid	2,2	1,7	3,5	3,2	2,9	2,4	3,7	2,7	1,4	0,7	8,9	9,8
CEPREDE-UAM	2,9	2,1	5,0	5,7	5,3	3,8	3,2	2,3	1,7	0,8	9,0	10,2
Merkataritza ganbarak	3,1	2,3	4,2	3,9	4,9	4,2	3,8	2,9	2,0	1,0	8,5	9,0
FUNCAS	2,6	1,5	4,4	3,8	4,0	2,9	3,8	--	1,5	0,4	9,0	10,3
ICAE-UCM	3,1	2,1	4,6	3,4	4,9	3,5	3,6	2,6	1,8	0,8	8,5	10,0
ICO	2,9	2,4	4,4	4,0	4,6	3,8	3,5	2,5	1,8	1,3	8,7	9,0
IEE	3,0	--	4,8	--	5,0	--	3,5	--	1,5	--	8,8	--
IFL-UC3M	2,9	2,7	4,4	4,0	5,2	5,0	3,7	2,5	--	--	8,8	9,1
Intermoney	2,3	--	5,8	--	4,3	--	3,4	--	1,2	--	9,4	--
La Caixa	2,6	2,9	4,8	4,7	4,8	5,1	3,8	2,8	1,5	1,6	8,7	8,8
SCH	2,6	2,0	3,8	2,6	3,6	2,0	3,2	2,8	1,8	1,3	9,2	9,4
BATEZ BESTEA	2,8	2,2	4,5	3,9	4,5	3,6	3,6	2,6	1,6	1,0	8,8	9,5
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2007-12)	3,3	--	5,4	--	5,5	--	3,3	--	2,2	--	8,2	--
E. Batzordea (2008-02)	--	--	--	--	--	--	3,7	--	--	--	--	--
NDF (2007-10)	4,3	--	--	--	--	--	2,8	--	--	--	8,2	--
ELGE (2007-12)	2,5	--	6,5	--	5,6	--	3,6	--	2,4	--	8,1	--

Iturria: Funcas.

Adituen taldeak egiten dituen aurreikuspenak osatzeko enpleguak izango duen portaeraz duten iritzia azaldu behar da. 2008. urtean aurrekoan baino hazkunde tasa txikiagoa lortuko dela eta ekoizkortasun irabaziak zertxobait suspertuko direla aurreikusten dute. Langabezia tasak hamarrenen bat igoko da, 2008an %8,6aren tasan kokatzeko.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2008ko otsaila)

30. TAULA



Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008	2009	2010	2011
BPG	3,8	3,0	2,7	2,5	2,4	2,6	2,1	2,0	1,2
Kontsumo pribatua	3,2	2,4	2,4	2,2	2,1	2,3	1,8	1,9	0,9
Kontsumo publikoa	5,2	5,2	4,9	4,6	4,6	4,8	4,0	2,2	1,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	3,8	2,7	1,4	1,0	2,2	0,2	1,2	-1,2
- Inbertsioa ekipamenduan	11,6	11,8	10,5	9,0	7,8	9,8	6,6	4,2	-1,2
- Inbertsioa bestelakoetan	4,3	2,8	2,6	1,5	2,1	2,2	2,5	1,5	1,1
- Inbertsioa eraikuntzan	4,1	0,6	-0,8	-2,1	-2,6	-1,2	-3,8	-0,2	-1,8
Barne eskaria	4,6	3,5	3,1	2,6	2,5	2,9	2,1	1,7	0,5
Esportazioak	5,3	5,3	4,9	4,9	5,0	5,0	5,7	5,1	5,5
Inportazioak	6,7	6,3	5,6	4,8	4,5	5,3	3,8	3,8	2,6

Iturria: CEPREDE.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

19. irudia



Iturria : INE eta CEPREDE.

NDFk, nazioarteko beste erakunde batzuen artean, moteltzeko joera arina aurreikusi du Espainiarentzat 2008. urtean eta espainiar ekonomia mehatxatuko duten arrisku nagusiak zerrendatu ditu. Ekoizpenaren lehiakortasun falta oztopo handia da herrialdearen esportazioak areagotzeko. Zorpetze maila handiak eta kreditu bat lortzeko baldintza murriztaileek doikuntza gogorragoak ekar ditzakete ekonomiaren eragileek kontsumoaz eta inbertsioaz hartuko dituzten erabakietan.

EAErako aurreikuspenak epe laburrean

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiarentzat egin diren hazkunde aurreikuspenak positiboak dira oraindik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak estimatu dituen azken datuen arabera. 2008. urterako, batez beste, hazkunde erritmoa %3,2 izango dela aurreikusten da. Beraz, zertxobait beherantz berrikusi dira aurreko hiruhilekoan egin ziren aurreikuspenak. Hala eta guztiz ere, hazkunde tasa horrek agerian uzten du EAEko ekonomiak bizi duen hedaldiak aurrera jarraitzen duela aurten ere. Nazioarteko finantza merkatuetan nagusi den ziurgabetasunak ez dio kalte handirik egingo EAEko ekonomiaren bilakaerari, baina munduko ekonomiaren gehikuntza tasa txikiagoa izateak, kredituen merkatuaren zorroztasunak eta familien aberastasun efektua txikiagoa izateak hamarrenen bat kendu diezaioke ekonomiaren hazkundeari. Hain zuzen ere, urte honetarako moteltzeko joera hartuko duela espero da, barne eskaria, bereziki kontsumo pribatua, eta eraikuntza gutxiago haziko direlako.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2008ko otsaila)

31. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak						
	2007	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008
BPG	3,9	3,4	3,2	3,2	3,0	3,2
Azken kontsumoa	3,5	3,2	3,1	3,0	3,0	3,1
Kontsumo pribatua	3,5	3,2	3,1	3,1	3,0	3,1
Kontsumo publikoa	3,7	3,4	2,9	2,7	2,8	3,0
Kapital eraketa gordina	5,9	4,9	5,0	5,3	4,5	4,9
Barne eskariaren ekarpena	4,4	3,6	3,6	3,6	3,6	3,6
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,5	-0,2	-0,4	-0,4	-0,6	-0,4
Lehen arloa	8,0	-6,9	-8,5	-5,1	-2,5	-5,8
Industria	3,8	3,3	3,5	3,6	3,2	3,4
Eraikuntza	4,0	2,6	2,2	1,9	1,8	2,1
Zerbitzuak	3,8	3,6	3,4	3,2	3,1	3,3
Balio erantsi gordina	3,9	3,3	3,2	3,1	3,0	3,2
Ekoizkinen g. zerga garbiak	4,3	4,5	3,7	3,9	3,7	4,0
BPGren deflatoarea	3,3	3,4	3,4	3,3	3,3	3,4
Enplegua	2,4	2,0	1,8	1,7	1,5	1,8
Langabezia tasa	3,3	3,2	3,3	3,5	3,5	3,4


Iturria: Eustat (2007) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

2008. urtean EAEko aurreikusi den ekonomia moteltzea Estatu osorako iragartzen dena baino leunagoa izango da. Eraikuntzak eta beraren inguruko adarrek EAEko ekonomiaren egiturari pisu txikiagoa izateak, ekoizkortasun irabazi handiagoak sortzeak, banakako lan kostuak neurri txikiagoan hazteak eta Europako egiturazko funtsetatik gutxiago jasotzeak iradokitzen dute gaur eguneko motelaldia neurri txikiagoan nabaritutako dela EAEko ekonomiaren gehikuntza tasan.

Familien gastuak 2007. urtean hasitako moteltze leunari eutsi dio 2008. urtean ere, baina oraindik hazkunde tasa nabarmenak lortuko dira, familien errenta erabilgarriaren igoerari esker. Halaber, familien kontsumoa erritmo motelagoan hazteak aurrezki tasa suspertzen lagundu dezake, egoera orekatuagoa sortuz. Enpresek ekipamendurako ondasunetan egingo duten inbertsioak sendotasuna erakutsiko du eta BPGren osagaien artean tasa handiena jasoko duena izango da. Eraikuntzan eginiko inbertsioari dagokionez, 2008. urtean gaur egun higiezinaren merkatuak bizi duen krisia areagotuko da. Moteltzeko joeraren atzean, aberastasun efektuaren beherakada eta hasitako etxebizitzaren kopuruaren jaitsiera daude. Etxebizitzaren eraikuntzaren jardura gutxituko denez, litekeena da langabezia igoetzea. Eszenategi horretan, obra zibilean egindako eraikuntza da etxebizitzaren arloaren ahultasuna konpentsatu dezakeen osagaia.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak Urte arteko aldakuntza tasak

20. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekonomiaren arlo guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen positiboak egingo dizkiote balio erantsiari 2008. urtean. EAEko ekonomiaren sektore guztiek antzeko hazkunde tasak jasoko dituzte. Lehenago aipatua izan denez, eraikuntzaren jarduera nabarmen motelduko da, industriak bilakaera hedakorriari eutsiko dion bitartean. Azkenik, zerbitzuek, ohi bezala, bilakaera egonkorra erakutsiko dute, nahiz eta hazkunde erritmoak zertxobait gutxituko dituzten.

Enpleguaren hazkunde tasa 2008. urtean %1,8 izango dela aurreikusten da orain. Beraz, aurreko hiruhilekoan estimatu zen tasa bi hamarrenetan gutxitu da. Lanpostuak sortzeko erritmoan hauteman den apaltzeko joerak ekonomia jardueraren motelaldia agerian uzten du. Hala eta guztiz ere, enplegu berria sortzeko ahalmena egotea eskariaren bizitasunari eusteko bultzagile nagusia da. Enplegu berriak bereziki zerbitzuetan sortuko dira, eraikuntzan lanpostuak sortzeko ahalmena gutxituko den bitartean. Barne produktu gordinaren eta enpleguaren bilakaeraz 2008. urterako egin diren estimazioek iradokitzen dute EAEko ekonomiaren ekoizkortasun irabaziak %1,4aren ingurukoak izango direla.

Aurreikuspen hauek egiteko orduan, kontuan hartu dira nazioarteko merkatuetan bizi den finantza krisia, higiezinaren merkatuaren krisia, familien gehiegizko zorpetze maila, dolarrak Europako diruaren aldean izan duen balio galtzea eta petrolioaren zein elikagaien garestitze bizkorra.

Gaur egun, Europako Banku Zentrala, moneta politika erabiliz, europar banku sistemaren desoreka eta beraren eragina kontinente zaharreko hazkunde ekonomikoan saihesten ahalegindu da. Hala ere, moneta agintariak inflazioaren gaur egungo maila altuegia dela ohartarazten dute. Ekonomiaren analisigile gehienek uste dute interes tasak bere horretan utziko dituela, inflazioa altuegia izan arren. Dena dela, horretarako aukera gutxi egon arren, ezin da osorik baztertu EBZk datozen bileretan interes tasak igotzea, hurrengo hilabeteetan Europako inflazioak moteltzeko joera garbia hartzen ez badu. Beste aldetik, litekeena da interes tasak jaitsi behar direla erabakitzea, barne eskariaren motelaldia orain aurreikusten dena baino handiagoa bada.

Euroak sendotasunari eutsiko dio dolarraren aldean. Cepredek estimatu du 2008. urtean euroak balioa irabaziko duela estatubatuar diruaren aldean eta euroaren urte osoko batez besteko balioa 1,42 dolarretan kokatuko dela. EBZk AEBekiko interes tasen aldea ere zaindu beharko du. Interes tasek Europan altuagoak izaten jarraitzen badute, dolarrak balio gehiago galduko du euroaren aldean eta egoera horrek kalte egingo dio Eurogunearen esportatzeko ahalmenari.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2008ko otsaila)

32. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008
AEB	2,9	3,7	2,7	3,1	2,6	3,1
Eurogunea	2,1	3,2	3,0	2,9	2,3	2,8
Espainia	2,8	4,4	3,9	3,7	2,8	3,7
EAE	2,8	4,3	3,9	3,7	2,7	3,7


Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

KPIren bilakaera


21. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak

EAE



Eurogunea



Iturria Eurostat, INE , Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.